

DATORRENA

Muga mentalak sobera
independentzia lantzeko ISIDRO ESNAOLA > 3

KOADERNOA

Koherentzia pixka bat
JOANA GARMENDIA > 21

2020ko urriaren 10a | XIV. urtea • 692. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



NOLA ANTOLATU ESKOLAKO ORDUAK?



Azukrea birdiseinatzeko formula da, agian, munduko sekreturik gordeena 04

Ikusmira: Torturaren ikur izatetik, turismo gune izatera 07

Aita Mari ontziaren historia eta erreskatatuen ahotsa jaso dute dokumental batean 08

Covidak eragindako errealitate berrian, ordutegi aldaketa konponbidea da? 12

Sarean 18

Elkarrizketa: Jordi Cortes, koreografoa eta dantzaria 22

Enkarguk, Azpeitiko merkataritza pizteko ekimena 27

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Muga mentalak sobera independentzia lantzeko
- 10 **Ander Gortazar Balerdi:** Apropiazio kulturala
- 11 **Mikel Zubimendi Berastegi:** Denbora kontua
- 15 **Amagoia Mujika Telleria:** Haurrei, txakurrei eta kaleko saltzaileei?
- 15 **Xabier Mikel Errekondo:** Sexualitatea ez da koitoa
- 16 **Quino gogoan: Exprai, Unai Gaztelumendi, Amaia Ballesteros, Alai Zubimendi**
- 20 **Gorka Zozaia:** Ukabil bakarrera
- 21 **Joana Garmendia:** Koherentzia pixka bat
- 30 **Maitena Usabiaga Sarasua** Zertan ari gara hezten?



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Muga mentalak sobera independentzia lantzeko

Financial Times-eko zutabegile batek aipatu zuen garai batean Eskozia eta Ingalaterraren arteko batasunak bi alderdien interesak batu zituela. Batasunaren bidez, Ingalaterrak beste herri bat gehitu zuen bere inperiora. Eskoziako eliteentzat, bestalde, Inperioaren barruan egoteak eremu oso zabala ireki zuen eragiteko. Gaur egun, egoera oso bestelakoa da. Britainia Handiaren indarra gainbeheran doa munduan eta, era berean, Londresen hartzen diren erabakiek eta Gobernuak aplikatzen dituen politikak gero eta marjina estuago uzten diete Eskoziako eliteei. Norabide horretan, Boris Johnsonen barne merkatuaren lege proiektua adibide bat besterik ez da. Ezbairik gabe, egoera berriak independentziaren nahiak hauspotu ditu Eskozian. Pentsatzekoa da Kataluniako eliteak ere antzeko ondorioetara iritsi direla. Eta eliteek zalantzak badituzte ere, herritarrek behintzat argi dute: Estatu espainiarreko sistema harriparekin ez dago zer egirik. Are gutxiago, espainolek euren interesen arabera arauak etengabe aldatzen dituztenean. Arrakeroekin jolastea baino hobe bakarrik ibiltzea. Euskal Herriko elite ekonomikoek, aldiz, ez dute Espainiatik banatzeko inolako interesik agertu. Gustura ibiliko dira Espainiako lokatzetan aberasten.

Edozein direla Londresen mugimenduak, eskoziarrek independentziarako bidea jorratzen jarraitzen dute. Eta badirudi Europar Batasunaren barnean segitu nahi dutela, baina ez euroaren barruan. Nonbait ulertu dute txanponaren esparruan burujabeak izatea oso garrantzitsua dela etorkizun ekonomikoa bermatu ahal izateko. Dibisaren gaia lantzeko eta independentzia aldarrikatu bezain pronto txanpon propioa izateko talde bat sortu dute: *Scottish Currency Group*. Dagoeneko, mila pertsonatik gora bildu ditu taldeak dibisaren lanketa egiteko. Bildutakoen artean, batzuk oso esanguratsuak.

Esate baterako, izena eman duen azkenetako bat AEBetako Stephanie Kelton irakaslea izan da. Kelton Bernie Sandersen aholkulari ekonomikoa izan da eta gaur egun Moneta Modernoaren Teoriaren (MMT) bultzatzaile nabarmenetako bat da. "The Deficit Mith" bere azken liburuak arrakasta handia lortu du. MMTren eskolakoek defendatzen dute txanpon burujabeak dituzten estatuek tresna guztiak dituztela langabezia desagerrarazteko. Dibisaren burujabetzaren garrantzia azpimarratzen dute behin eta berriro.

Edozein kasutan, harrigarriagoa izan da independentziaren aurkako eta unionismoaren aldeko *These Islands* foroaren arduradun Sam Taylorren parte hartzea talde horretan. Egia da Taylorrek gogoetak egin dituela txanponaren inguruan. Orain dela gutxi idatzi zuen Eskozia

Edozein direla Londresen mugimenduak, eskoziarrek independentziarako bidea jorratzen jarraitzen dute. Eta badirudi Europar Batasunaren barnean segitu nahi dutela, baina ez euroaren barruan

independente batek bere txanpon propioa izatea eragin-korrakoa izango zela libera esterlinarekin jarraitzea baino. Hala ere, dibisa hori libera baino ahulagoa izango litzatekeela uste du. Tim Rideoutek, *Scottish Currency Group* taldeko koordinatzaileak, aitortu zuen kontu handiz aztertu zuela Taylorren parte hartzeko eskaera, onartu aurretik. Eta honela arrazoitu zuen baietza: «Ez gara baietzaren aldeko burbuila bat bakarrik, sinestunak ez direnak konbentzitzen saiatu behar dugu». Kofradietan banatuta dagoen herri batetik horrelako erantzunak entzuteak harritu egin gaitu, baina hori da bidea gehiengoak lortzeko. Eta bestelako muga mentalak altxatzea ere ezinbestekoa da, txanponaren ingurukoak barne. •

AZUKREAREN DEMONTREA

Azukrea birdiseinatzeko formula da, agian, munduko sekreturik gordeena

XVIII. mende bukaera arte, azukrearen ekoizpena mekanizatzen hasi arte, jende gehienak ez zuen nutrizionistek deitzen duten azukre “gehigarririk” kontsumitzen, ez zuen modu naturalean sortzen zirenak –esnearen laktosa edo frutaren fruktosa esaterako– baino beste edulkoratzailerik hartzen. Euskaldun arrunt bat bizi eta hil zitekeen gozo edulkoraturik probatu gabe, ohikoak diren azukrez gozatutako jogurt, salsa, zereal edo edaririk dastatu gabe.

Gaur, azukre zuri ala azukre beltz, euskaldun batek batez

beste 20 koilaratxo hartzen ditu egunean. Baina bere dastamen papilak ia ez dira kontaktuan sartzen azukre kopuru horrekin, gustu gozoen errezeptoreak kamustuta dauzka-

 **JENDARTEA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Gozotasunak txoratu egiten gaitu. Osasunarentzat, baina, tabako berria omen da. Ezinezkoa dirudien ametsa gauzatzeko lasterketa globala martxan da: elikagaietatik azukrea kentzea gozo sentsazioa kendu gabe. Baina azukrearen ordezkoko on bakarra azukrea denez, azukre gutxiago jateko bide bakarra dago: gutxiago jatea.

Azukrea birdiseinatzeko lasterketa abian da, baina ez da erraza izango. Ez diote gure biologiaririk ziria erraz sartuko. GAUR8

gulako. Mihiak mikatza dena detektatzeko milioi bateko parte txiki batzuekin aski du, baina edalontzi bat ur zaporez gozo izateko, koilaratxo bat azukre bota behar zaio.

Gero eta jende gehiago interesatzen da azukreak bere dietan duen rola inguruan. Iritzi publikoa aldatu da, azukrearen kontra aldatu ere. Pepsi bat edo txokolatina bat ez ditugu lehen bezala ikusten. Osasuna dago tartean, eta munduan gai gutxi egongo dira osasuna adina interesatzen zaizkigunak denoi; aberats edo pobre, espainol edo euskaldun, denok jartzen dugu arreta osasun kontuetan.

Azukrearen alternatiba, baina, ez da ebidentea, ez da ordezkatzeko erraza. Mende batez dabilta zientzialariak ahaleginean, baina probatu izan diren alternatiba artifizialek ez zuten azukreak duen erakargarritasuna, edo sukaldean erabiltzeko moldagarritasuna.

Nutrizio estandar berriak daude egun, arau gehiago, sentimendu publiko agerikoagoa, eta horrek beldurra eragin du konpainietan, berrikuntza eta ikerketarako bultzada. Lehia-keta berria martxan dago, azukrearen ordezkoko baino azukre hobe bat diseinatzea helburu duen lasterketa.

MOLEKULA BERRIA DISEINATZEA

Azukrea gutxitzeko, azukrea! Ordeztea baino, birformulatzea. Horra demontrea. Listuak eramaten du sakarosa dastamen errezeptoreetara, gure ahoan azukre kristalak disolbatzen baitira. Baina pastel bati ematen diogun hozkada bakoitzeko azukrearen bosten batek konektatzen du soilik errezeptoreekin. Gainerakoa urdailean garbitzen dugu: kontsumitu baina inoiz dastatzen ez ditugun kaloriak.

Errezeptoreei ziria sartu? Nola? Nola gezurtatu gure biologia? Izan ere, gizakiok arriskuz beteriko inguru batean eboluzionatu genuen, gaixotu



edo hil zezaketen sustantziek inguratuta, eta horrek egin gintuen arrisku izan zitezkeen zapore desatseginekiko oso sentikor. Lehen gizakiek aurkitu zuten gauzarik gozoena fruta izango zen, edo zorte pixka batekin, ezta. Baina, oraindik ere, gozoaren iturri merke eta kontaezinen artean bizi arren, gure azukre errezeptoreak banana ondu haiekin sintonizata daude. Azukre gutxiago jateko hobe litzateke gure gozo errezeptoreak sentikorrak izatea, baina horretarako, gutxienez, beste 200.000 urte beharko genituzke.

Eta azukrearen molekula berriz diseinatuko balitz? Ahaztu gozagarri artifizialak, kanpora sakarina edo aspartamoa. Azukre erreala behar da, forma berria izango duena, gozotasuna kaloria gutxiagorekin lortzeko. Ziri hori sartzea ez da izango gauza erraza baina ari dira, aspaldi. Helburu argiarekin: munduan gehien maite dugun pastel gozo hori berdin-berdin jatea azukre erdiarekin. Hori sinesten ez dutenak ohartzeko izen aproposa jarri diote azukreari, "Incredo".

Eta berdin gure Nocilla edo Nutella bokatarekin. Zapore berdina, edo handiagoa, testura berdina, betiko ogitarteko gozoa. Laborategian diseinatu eta munduko azukre ekoizle eta banatzaile handienek industrialki egiten hasia.

AZUKREA AZUKREAREN ALTERNATIBA

Azukrea gizentasun pandemia bat sortzen ari al da? Tabako berria al da? Obesitateak, diabetesak eta bihotzekoek gora egiten dute azukre gehiago, gehiegi, kontsumitzen dugulako? Azukrea osasunarentzat arazo larria da. Neurri kontu bat da, eta neurrigabea ere. Azukrea berriz diseinatzea da



asmoa, gozoa izaten jarraitzea, baina azukre gutxiagorekin; beti bezain ezti, baina kaloria gutxiagorekin. Azukrearen alternatiba bakarra azukrea da.

Diotenez azukrea adiktiboa da, droga bat. Kokainaren mendera erorien burmuinetan nola, plazer puntu berberak estimulatzen dituena. Horrek esplikatzeko ditugu agian

Azukrea gizentasun pandemia bat sortzen ari da. Osasun publikoaren ikuspuntutik, tabako berria dela esaten dute aditu askok.
GAUR8

zergatiak. Zergatik gauden beharko genituzkeen kalorietatik hain gainera, egunero zergatik kontsumitzen ditugun 15 koilaratxo goian behean. Eta kardiologoaren aldizkarietan esaten denez, gehienez jota, 9 koilaratxo hartu behar dira.

Munduan paketatutako elikagaien hiru laurdenek azukre gehitua daukate. Eta ibilbide

berdinari jarraituz gero, populazioaren erdiak izango du gehiegizko pisua edo obesitatea hamabost urtetan, zortzik batek diabetesa izango du.

Sakarina edo aspartamoa probatu dira kaloria baxuko ordeko gozagarri gisa, baina alferrik, ez dute azukrea ordezkatu, zapore txarra daukate eta, omen, osasunarentzat ez dira hain onak ere. Azukrea baino askoz ere gozoagoak izan arren, ez dira inondik ere alternatiba izatera iristen, nahi eta ezin bat dira.

Eta funtzionaltasun mailan, zer esanik ez! Sakarosak izozkietan izotz kristalak sortzea eragozten du, freskura ematen die labeko produktuei, bolumena oreari, ahoa betetzen digun biskositatea edariei... Ekoizleek zernahirako erabiltzen dute, baita mihiarentzat dastaezina den gozotasuna duten mahonesan edo ogian... Gure sukaldaritzan hain oinarritzko parte da azukrea ze oso zaila baita ordeztea, baita haren molekulak aldatuta ere, oso zaila.

FORMULA SEKRETUA

Eta nola egin? Nola saiatu egiten? Molekula berregituratuz, nahiz eta hori zehazki nola egiten den sekretu bat izan, goi mailako sekretua. Gainera badago presio handi bat, gero eta kontzientzia handiago bat, batez ere umeak azukre gehiegitxo kontsumitzen dutela, edarietan eta janarietan.

Formula sekretua da, bai, goi mailako sekretua. Industriak, korporazio multinazional erraldoiek kontrolatzen dutelako, urtero dirutza gastatzen dute ikerkuntzan eta garapenean, beti helburu berari begira: azukrearekin eta haren osasun ondorioekin gero eta kezkatuago dagoen mundu ba-

tean, inoiz baino gauza gozo gehiago saltzea.

Azukrearen ekonomia masiboa da, erraldoia, milaka eta milaka milioi mugitzen dituen negozioa, eta jendearen ogitarteko eta edari gustukoen formulak aldatzea, molekula birdiseinatzea, arrisku handiko erabakia da. Eta zaporeari edo diru sarrerei eragin gabe gainera, broma gutxi. Begira ze gertatu zen Coca-Colak bere betiko formula aldatu behar zuela jakin zenean, “Coca-Cola berria” ideia errotuta.

Baina Coca-Cola konpainia bezala, Nestle eta beste konpainia asko gozagarrien erabilerak gutxitzen duten errezetak asmatzen eta berridazten ari dira, oso serio lanean. Kontsumitzaileek badakitelako gozorekiko gure gustua asetzeko arrisku handiak dituela.

Ikuspegi ezberdinak daude helburu bera erdiesteko. Batzuek blokeatzaile mikatzak erabiltzen dituzte, landare edo kimiko sintetikoak izan daitezkeenak, dastamen papilek ohiko elikagai askotan, adibidez artale eta kafe bihietan, dauden zapore lehorgarriak ez detektatzeko. Aipatu dugun molekulen berrantolaketa dago gero. Ez omen da arrisku tsua, baina ez da oso ohikoa ere. Ematen du zientzia iluna dela pixka bat, baina ari dira azukre molekula agente eramaileekin batzen dastamen papiletan azukre iturri kontzentratuak sortzeko.

TESTURA ETA BOLUMENA

Prozesua kimioterapiarekin alderatu dute. Farmakoa enkapsulatu, odol zirkulaziotik pasa eta tumorera iristean askatu, minbiziari eraginkorren eraso egiteko kimioterapiaren nola, halatsu egiten da azukrearekin: hartu eta dastamen



Euskal pastela.
GAUR8

hartzaila hartzera heltzean askatu, mihian gozotasun askapen kontzentratua gerta dadin.

Azukrea birformulatzen konpainia asko dabilta, eta denen buru, aurreratuen, Nes-

tle multinazional suitzarra eta DoudMatok *startup* israelarra daude. Ez daukate desafio tekniko bat bakarrik, ez da soilik diseinu kontu bat. Beste errezetetan txertatzea, sartzea, sukaldetan daukan moldagarritasuna ez galtzea bermatu behar da halaber. Azukreak ez baitu bakarrik zaporea ematen, era berean, zerikusi handia du edarien eta gozoren testura eta bolumenean, bereziki betidanik zoratu gaituzten pastel eta galleta horietan.

Eta azukre berri hori lortuko balitz, azukre gutxiagoko betiko azukrea diseinatzea lortuko

balute, ondorioak egongo dira. Adibidez, neurrian.

Denek lehenesten dute osasuna, baina gero, erosketa patroiak eta moldeak aztertuta, beste ezeren gainetik gustua lehenesten da. Azukreak hori baitauka, gustua eta osasuna uztartu beharra. Elikagai azukretsuak jateko gure gogoa agian ez doa gorantz etxafuegoa bezala, baina oso goian segitzen du. Edari freskagarri gutxiago agian, baina ez ditugu txokolate eta galleta gutxiago jaten. Gozoak txoratzen gaitu. Gozoak jarriko ginateke gozorik gabe.

Neurri kontu bat da azukrea, neurrigabea ere. Azukre gutxiago nahi da baina beti bezain gozo, kaloria gutxiagorekin beti bezain ezti. Hortaz, azukrearen alternatiba bakarra azukrea da

Formula sekretuak helburu bat du: azukrea eta osasunerako dituen ondorioekin gero eta kezkatuago dagoen mundu batean, kosta ahala kosta, inoiz baino gauza gozo gehiago saltzea



Ezequiel BECERRA | AFP

IKUSMIRA

TORTURAREN IKUR IZATETIK, TURISMO GUNE IZATERA

Costa Ricako San Lucas uhartean herrialdeak izandako kartzelarik krudelena dago. 1873tik 1991ra egon zen zabalik herrialdean torturen eta giza eskubideen urraketen sinbolo den espetxea. Itxi zutenik abandonatuta egon ondoren, aurten bai kartzela bai uhartea bera ere turismo gune bihurtu dituzte, natur paradisu ikusgarria

baita berez. Oinezkoentzako bideak zabaldu dituzte eta denboraren poderioz kaltetutako azpiegiturak eraberritzeko inbertsio planak egin ditu Gobernuak. Espetxea 117 urtez egon zen zabalik. Hasieran, Tomas Guardia garaiko gobernadore militarren iritziz «zitalak ziren politikoak» giltzapetu zituzten bertan. Bigarren fase batean, «gaizkile arriskutsuenak». Bertan egon zen hamar urtez Jose Leon Sanchez idazlea. Jasandako torturak, gosea, tratu txarrak eta presoek pairatzen zituzten sexu erasoak «La isla de los hombres solos» eleberrian bildu zituen. San Lucas «Costa Ricako Alcatraz» dela esan daiteke. Orain, turismo gune bihurtu dute. Ainar Lertxundi

AITA MARIREN BARNEAN

Ontziaren historia eta etorkinen ahotsa jaso du Nervio ekoiztetxeak

Aita Mari erreskate ontziari buruzko dokumentala ia osatuta du Nervio ekoiztetxeak.

Javi Julio argazkilari eta kamera-riak duela hiru urteko azaroan hasi zuen abentura hori. Bartzelonatik bueltan, urriaren 1eko independentzia erreferendumaren berri eman ostean, Salvamento Marítimo Humanitario (SMH) gobernuz kanpoko erakundearen erreskate ontzian joan zen, Mediterraneoko eta etorkinen tragedia dokumentatzeko asmoz.

«2018ko apirilean, Iñigo Gutierrezek deitu ninduen jada barku propio bat zutela esateko. Arrantza ontzi izandakoa zela eta erreskate lanak egin ahal izateko eraberritu behar zutela.

 **JENDARTEA** / Ainara Lertxundi

Aita Mariren proiektua oso gertutik ezagutzeko aukera izan du Javi Julio argazkilari, kamerari eta produktoreak. la hiru urtez erreskate ontziaren bilakaera eta egindako hainbat erreskate filmatu eta fotografiatu ostean, Aita Mariri buruzko dokumentala bukatzeaz dago, Juliok berak eta kide batek sortutako Nervio ekoiztetxearen bidez.

Istorioak segituan harrapatu ninduen; oso interesgarria iruditu zitzaidan ideia azaldu zidan momentutik eta proiektua hasieratik grabatu nahi nuen, nahiz eta une horretan ez nuen helmuga garbirik. Argi nuen bakarra, proiektuaren eboluzioa jaso nahi nuela. Asmoa, ontzia urte horretako maiatzean Paisaiara eramatea zen eta abuz-

tuan lehen irteera egitea. Epe hori atzeratu egin zen, batetik, lanak sei hilabetez luzatu zirelako eta, bestetik, Estatuaren blokeoagatik», gogora ekarri du Juliok GAUR8rekin elkarrizketan.

Azkenean, urtebetez Gobernu espainolak ezarritako oztopo burokratiko guztiak gainditu ondoren, Aita Mari itsasoratu egin zen. Soilik Lesbosera joate-

ko baimena zuen. Bidean erreskaterik egitekotan, 901.000 euroko isuna jaso zezakeen. Paisaiara itzultzean, erreforma lan gehiago egin zizkioten. Estatuaren blokeoaren gainetik, berriro itsasoratzea lortu zuen.

«Hamasei pertsona geunden tripulazio gisa, eta bakoitzak eginkizun zehatz bat zuen. Nik lauretatik zortzietara guardiak egiten nituen goizean eta arratsaldean. Argiari dagokionez oso ordu politak ziren, egunsentia eta iluntzea baitira, baina nekagarriak ere. Guardian arteko denbora librean, argazkiak egiteaz gain, erreskatatutako erre-fuxiatuekin elkarrizketak izaten nituen. Itsaso zakarreko egunak egon ziren, ontzia pila bat mugitzen zen. Erreskatea egin genuenetik, lurreratze baimena eman ziguten arte, sei bat egun

Erreskatatutako pertsona talde bat Siziliako kostaldera begira, Aita Mariri, lurreratze baimenaren zain. Irudia, 2019ko azarokoa da. Javi JULIO




«Dokumentalak ez du soilik Aita Mariren eraldaketa erakusten, baita norbanakoena ere. Aldi berean, Europar Batasunaren migrazio politikaren salaketa bat izan nahi du»

igaro ziren. Izugarria eta hunkigarria izan zen esperientzia».

Errefuxiatuekin harremana nolakoa zen galdetuta, «oso ona» izan zela nabarmendu du. «Aita Mari txikia da. 32 metro ditu eta une batean 96 pertsona geunden bertan, tripulazioaren eta etorkinen artean. Pentsa ezazu! Nahiko ondo zeuden, zorabioak kenduta eta horrek lagundu zuen», dio.

BORTXATUTAKO NESKAREN ISTORIA

Erreskatatzaileen artean Senegaldar bat dago. «Noraezean zegoen ontzia ikusi genuenean, boluntario horrek etorkinei galdetzen zien ea haien artean senegaldarrik edo wolofera hitz egiten zuenik zegoen. Haientzat izugarria da, ez da gauza bera bat-batean hainbat gizon zuri kaskoak jantzita topatzea, edo haien hizkuntza bera hitz egiten duen eta azal kolore berdina duen herrikide bat aurkitzea. Gambiako mutiko bat zegoen eta harekin mintzatzen hasi zen eta horrek asko lasaitu zuen. Ontzira banan-banan igotzen ari gine-la, norbait gazteleraz hitz egiten entzun nuen. Harengana joan nintzen zuzenean. Emeka zuen izena. Lehen bidaian, Melillako harresia saltatzea lortu zuen. Hamar urtez egon zen Mallorcan. Aita hiltzean, Nigeriara itzuli behar izan zuen. Bigarren aldian, Libiako ibilbidea egin zuen. Gauza bat da txosten edo erreportaje batean irakurtzea ibilbide horretan gertatzen diren eskubide urraketak eta beste bat, salbamendu jaka kendu berria eta oraindik bustita dagoen pertsona batengandik zuzenean entzutea. Berarekin zihoan neska Libian bortxatu zutela, bortxaketaren ondorioz haurdun gelditu zela eta umea galdu zuela kontatu zuen. Libia



Aita Mariko tripulazioa etorkinei agur esaten Siziliako Pozzalo Portuan 2019ko azaroan. Javi JULIO

hitza entzun orduko negarrez hasi zen neska. Nirekin zihoan beste kazetaria eta biok ere negarrez hasi ginen. Hori guztia txopan, 80 pertsonaz inguratuturik», adierazi du Juliok.

Bi urte eta erdiz grabatutako eta fotografiatutako bizipen horiek guztiak bildu ditu kide batekin martxan ipini zuen Nervio ekoiztetxeak.

«Dokumentalak ez du soilik Aita Mariren eraldaketa fisikoa erakusten, baita norbanakoena ere. Aldi berean, Europar Batasunaren migrazio politikaren salaketa bat izan nahi du. Muga-tan bizi diren egoerak azalera-tzea. Huts egin duten EBren politiken ondorio dira Salvini bezalako politikariak eta etorkinak inbasore gisa aurkezten dituzten ideologia ultraeskuindarrak», nabarmendu du.



Aita Mariko erreskate taldea noraezean zebilen ontzi batean aurkitutako etorkinak itsasontzira eramaten. Javi JULIO



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Apropiazio kulturala

Hogeita hamar segundo eskaseko iragarkia da. Hasieran saskibaloï partida bat, kanta txiki batean; ariketa fisikoa. Ondoren adineko emakume bat sutondo eder batean bero-bero; berotze sistema jasangarria. Leihoaren beste aldean, bat-batean, mutil gazte baten silueta bizkorra, bizikleta gainean zilipurdika; kultura urbanoaren adierazlea, ia-ia klisea. Zazpigarren segundoan gaude.

Plano zabal bat dator gero, eta txirrindulari akrobatiko gehiago, baita skater batzuk ere. Hiri barruko espazio publiko zabal batean ari dira zilipurdika, espresuki horretarako diseinatutako topografia artifizial jostalari batean. Ezaguna da tokia: BIG arkitektura bulegoaren Superkilen parke lineala da, Kopenhage hiriko Nørrebro auzoan. Proiektu polita da: trenbide zahar batek utzitako espazioa auzoa berregituratzeko erabili zuten, etxebizitza berri batzuen eta parke lineal baten bidez. Auzoak motorizazio maila oso baxua du, alegia, oso kotxe gutxi biztanleko, eta bidegorri eder batek parkea puntatik puntara zeharkatzen du.


Baina gatozen iragarkira. Hamargarren segundoan gaude eta lehen hitzak agertu dira, «etorkizunak dio», ondoren datorrenaren erakusgarri: kotxe bat. Bizpahiru segundoz, gertutik ikusten dugu kotxea mugimenduan, kotxeek sarrera debekatua duten parke batean, ska-

terrez eta txirrindulariz inguratutik. Auto ekoizlearen malaletxea are agerikoagoa da hurrengo segundoetan. Plano zenital oparo baten bidez erakusten dute orain kotxea martxan: bidegorritik doa, baina bidegorria denik ez da antzematen, lurreko pintura seinale guztiak digitalki ezabatu dituztelako. Harrapazak, Txiribiton. Mezuaren bigarren zatia doa letra larriz gainjarrita, «ESPAZIOA DAGOEN TOKIAN».

Hamaseigarren segundoan eszena aldaketa dator. Snowboardlari kuadrilla bat ziztu bizian maldan behe- ra, BIG bulegoaren beste proiektu batean. Copenhill da, eskiatzeko pista bat errauskailu baten gainean. Proiektua, Euskal Herriko mediokritatetik urrun, erakargarria eta efektista da, baina gaindimentsionatua dago eta atzerititik inportatutako zaborra erre behar du errentagarria izan dadin (begi keinua, begi keinua). Lau segundoren ondoren mezuaren jarraipena, azken traka izango balitz bezala. Gogoratu nola hasten zen: «Etorkizunak dio, espazioa dagoen tokian 'egin ezazu zerbait berria. Megabox biltegiratzeko adimentsuarekin. Puma Ecoboost hibridoa. Ford, eka- rri etorkizuna'».

Nekez lor daiteke hain segundo gutxitan halako hipokrisia maila; kultura urbanoaren, bizikletaren, jasangarritasunaren halako erabilera tranpatia.

Apropiazio kulturalaren eztabaida pizten denean batzuek Rosalia aipatzen dute, baina nire karta hobea da. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Denbora kontua

Lagun batekin aritu nintzen aurrekoan dauden egoerez eta aukerez berbetan. Estu eta nekatu samar ikusi nuen, pixka bat erreta, koronabirusarekin eta Euskal Herriarekin, guztiarekin. Europako erreskateko diruak AHT eta Iberdrolari, atxiloketa eta epaiaketen gurpil zorua, gizarte obediencia garena, bazuen aizkora sartzeko nahi beste egur. Aipatu zidan iragan hurbilak kezkatzen zuela, orainak ez ziola lasai egoteko tarterik uzten eta etorkizun berri bat ikusi nahi baina ezin zuela. Pandemiarekin dena ilunagoa egin dela. Denboran luzerako doala. Denbora Euskal Herriaren kontra zihoala, ez dugula ezer ulertzen eta ez daukagula hori aitortzeko umiltasuna, denbora arraro honek ezkor, kopetilon egoteko arrazoiak ematen zizkiola. Behin eta berriz, ia-ia enpatxatzeraino.

Denbora kontra, sentimendu gogorra da eta hori sentitzea normala ere izan daiteke, zilegia. Eutsi horri, kontzientzia eta izerdiaren jabe izan nahi dugu, baina ez nago ados. Onartzen dut aldarte hori, sentimendu hori errespetatzen dut, baina ez nago ados eta ez gauden hemen kea saltzeko. Jaki-na sentitu zaitezkeela

nekatuta, etsitu samar, egoera denboran luzera doala begira, begi denak hor jarrita. Agian aldarte, koronabirusa bezala, kutsakorra da, salto egiten du pertsona batetik bestera gizarte osoa kutsatzeraino. Eta igual hori da denbora honen kontzientzia, beste aldarte posiblek ez dago. Posible da.

Denbora kontra dugula? Denok ere zahartzen goaz, baina zahar usaineko eztabaida da hori, errepikakorra. Bi erantzun posible dituen galdera da: denbora kontra badugu, presaz, itolarrian ekitea beste erremediorik ez da; eta alde badugu, lasai-lasai, patxada ederrean egon gaitezke, denbora baino aliatu preziatuagorik ez delako ezagutzen.

Kezkarako motiboak ez ditut ukatuko, itxaropenarako daudenak ukatuko ez ditudan bezala. Aurreratu be-

harko genuena ahazteke, baina aurreratu dugunari balioa emanez. Oso zaila eta gogorra da egoera, begi bistakoa da hori, baita oso zailak ziren urteetan erakutsi den ahalmena eta neurria ere.

Bizitzak erakusten dizu zure alde edo zure kontra bizi baino, denbora hil egin behar dela, akabatu. Eta denbora hiltzea baino krimen arrunt eta legitimoagorik ez dagoela inon, bereziki zenbait leku eta egoeratan. Denboraz motz eta tormentuz lepo bizitzea da alternatiba bestela. Erretzen duen su batekin bizitzea. Nahiko kolpe eta ezusteko ematen ditu bizitzak berez, denboraren mailua gure kontra danbaka irudikatzeko.

Eta pentsatzen jarrita, ez dago etorkizun zori-garbi baten edabe magikorik, ezin da etorkizuna horrela erabaki. Denbora alde edo denbora kontra pentsatu baino, une egokian eta garaiz gaudela pentsa dezakegu, era-

Iragan hurbilak kezkatuta, orainak lasai egoteko tarterik utzi gabe eta etorkizun berri bat ikusi nahi eta ezin. Agian denbora honen kontzientzia posible bakarra hori da

baki nola egin nahi diogun aurre, norantz jiratu nahi dugun gorpila. Eta hori egin, zuzentasuna, integritatea sekula ez dela galdu behar jakinda.

Pandemia aro hau ere pasatuko da, eta ez dakigu oso ondo nola baina aterako gara hemendik ere. Agian pobretuago, herri gisa ahulago, baina ongi jaioak, beti-beti eta betek. Euskal Herria hitz batean irauna baita. Eta aro berri bat etorriko da, udaberria baino guztiz beldurgarria agian. Eta erantzun gabe utziko gaitu, hankaz gora, goazen ala gatozen jakiteko lanpetuegi. Eta orduan ere, berriz azalduko da denbora, garai berria, une historikoa. Alde edo kontra, beti berdin. Eta lehen bezala, orain eta gero ere, hor egon beharko dugu, garaiz eta une egokian, denbora hiltzeko bulkada kriminal harro zoragarri horrekin armaturik. •

ESKOLA ORDUAK EZBAIAN

Covidak eragindako errealitate berrian, ordutegia aldatzea konponbidea da?

Ziurgabetasunez beteriko ikasturte honetan galdera eta kezka ugari ari da planteatzen hezkuntza munduan, gela barruan eta kanpoan, profesionalen eta familien artean. Eskolara itzuli da osasun krisi baten erdian eta kutsatzeak saihesteko hainbat neurri hartu dira, baina egoera berezi baten eraginpean daude ikastetxeak eta familiak. Dudarik gabe, ikasturte berria ez da aurreko beste edozein bezalakoa izango.

Kezka horietako batzuekin lotuta, eskola jardunaldiari buruzko eztabaida jarri da mahai gainean, EAEn bereziki. Ez da debate berria, eta hari lotuta aztertu beharreko errealitate anitz bat dago, baita hainbat egoera eta faktore ere. Horregatik, covid-19aren pandemiak dena baldintzatzen duen une honetan, eragile batzuek uste dute ez dela eztabaida egiteko unerik egokiena, tartean gai asko argitu gabe daudenean.

Hala ere, eztabaida kalean dago. Eskola orduak goizean kontzentratu edota goizez eta arratsaldean banatutako ordutegia mantendu?

Gaia familia talde batek jarri du mahai gainean EAEn haur eta lehen hezkuntzan ordutegi trinkoa eskatuta. Eskola jardunaldi jarraitua ezartzea eskatu dute Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 10.000 familiak baino gehiagok eta arrazoi nagusia osasun krisialdiak eragin duen errealitate berrian jartzen dute.

Argitara eman duten manifestuan pandemiaren ondorioz sortu diren «osasun eta gizarte krisiak» etxeetan eragin dituzten aldaketak nabarmentzen dituzte. Horrekin batera, Lakuako Hezkuntza Sailak jarritako neurriak «era seguruan» itzultzeko nahikoak ez direla uste dute.

 **JENDARTEA** / Nerea GOTI

Eskola ordutegi trinkoa ala goiz eta arratsaldean zatituta? Eztabaida mahai gainean jarri du atxikimendu ugari duen guraso talde baten eskaerak. Kontziliazioaren eta osasun neurrien soluzio gisa planteatzen dute. Ikuspuntu pedagogikotik, harremanei, errendimenduari, euskarari eta arrakala sozialari begiratuta, zatitua hobe.

«Ratio berberekin jarraitzen dugu, ez dira gune alternatiborik prestatu, ez dira irakasle gehiago kontratatu, ez dakigu zer gertatuko den jantokiekin ezta ikastorduetatik kanpo ematen ziren beste zerbitzu batzuekin ere, eta hartu diren neurri bakarrak ikastetxeek ezarriak izan dira», kexu dira.

Agertoki horretan, «lana eta familia bizitza ezin uztartzera kondenatuta» daudela diote aita-amek. Diotenez, «ez da ordutegian aldaketarik egiteko saiokerarik egin» eta gaineratu dute familia gehienek egunero lau

bidaia egin behar dituztela eskolara, «horrek dakarren arriskuarekin».

Horregatik, manifestua sinatu duten familiek «pauso bat aurrera» egiteko eskatu diote Lakuako Gobernuari eta hori eskatzen duten ikastetxeei «jardunaldi jarraitua» ezartzeko aukera eman diezaiela planteatu dute, ordutegi trinkoak ekar ditzakeen «hobekuntzak» kontuan hartuta.

Planteatzen dutenez, jardun jarraitua eginda joan-etorriak murrizten dira eta «garraio publikoetako kontaktuak gutxi-

tu», beraz, pilaketak saihestuko lirateke eta kontaktuak mugatu, jantokia ez litzateke masifikatuko eta funtzionamendua hobetuko litzateke, familia eta lana bateragarri egiten lagunduko luke eta onurak ekarriko litzioke osasun publikoari.

Covid-19aren pandemiarekin, segurtasun neurrien artean ordutegi trinkoa ezarri dute toki askotan. Nafarroan bertan, horren aldeko apustua egin du Hezkuntza Departamentuak, arratsaldeko eskolaz kanpoko jarduerak bertan behera utzita. EAEn, berriz, indarrean jarraitzen du goizez eta arratsaldean banatutako jardunaldiak eta astean egun batean baino ezin da egin jardunaldi jarraitua.

EZTABAIDA SAKON ETA SOSEGATUA

Egungo testuinguruari begiratu, «ikasturte hasierako ziurgabetasuna eta oraindik konpondu gabeko gai asko egonda, eztabaida interesatuak ari dira sortzen, eta, horien artean, lanaldi jarraituarena ari da nabarmentzen, familiok gauetik goizera ditugun kontziliazio

Ikasleak, normaltasun berrian, ikasturte berriaren hasieran Bilboko ikastola batean.
Luis JAUREGIALTZO | FOKU



Irudian, Burlatako Askatasuna ikastetxeke ikasleak gela barruan, segurtasun neurriekin. Idolia ZABALETA | FOKU

arazoen irtenbide bakar gisa», azaldu du EHIGE guraso elkar-teen federazioak. Egoera hone-tan, haren iritziz, ez da une «egokia» eztabaida «sakon eta sosegatu» bat egiteko. Elkar-tearen ustez, eskola jardunaldia «analisi pedagogiko eta zientifi-ko baten markoan finkatu be-har da, gela barruko ordutegi akademikoa murriztu gabe».

Idoia Sagastegi jardun jarrai-tuaren aldeko plataformako ki-dea da. Dioenez, egun, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan legeak ez du jardun jarraitua baimen-tzen. «Lege hori aldatzea eska-tzen dugu eta ikastetxeei alda-tzeko aukera ematea, Estatuko gainerako autonomietan horre-la egin baita gehienetan. Kata-lunian ezin zela uste genuen, baina zentro pilotu batzuetan ezarri omen dute, Gaztela eta Leonen aztertzen ari dira...», azaldu du, kasu gehienetan pandemia dela-eta hartutako neurri bat izan dela zehaztuta.

Osasun egoerak sortu dituen arazoen testuinguruan plante-a-tu dute, baina azken hiru urtee-tan guraso taldean gaia lantzen ari zirela azaldu du, ikastetxeei ordutegia aldatzeko aukera ematearen alde. Eskaerak fami-lien artean orain izan duen oihartzun handia ikusita, egiaz-tatu dute familien artean kezka dagoela gai horren inguruan. Egun pare batean atxikimen-duak ehunka izatetik milaka izatera pasatu zirela aipatu du.

«Guraso elkartean bagenera-matzen urte batzuk aukerak ba-loratzen, hitzaldi bat egin ge-nuen iaz, jardun jarraituko proiektu bat egin genuen, zu-zendaritzarekin lotu genuen, inkesta egin genuen familien artean... eta pandemiarekin sor-tu den beharretik dator eskae-ra», dio gasteiztarrek.

Ordutegi trinkoaren aldeko gurasoek diote ez dagoela fro-



OSASUN NEURRIAK, DENBORAK, CURRICULUMA...

Ordutegiari buruzko eztabaidaz gain, beste kezka batzuk ere eragiten ditu pandemiaren ikasturteak. Nola eragingo du maskaren erabilerak? Nola jarraituko da eskolekin etxetik bakartze bat edo gehiago bete behar izatekotan? Badituzte ikasle guztiek egoerari aurre egiteko baliabideak? Ebaluazioak nolakoak izan behar du egoera honetan? Horrelako galderak sortzen dira gurasoen artean, DBHtik aurrera bereziki.

«Osasun neurriak hartu egin behar dira, hori argi dago, baina garbi eduki behar dugu gero horrek automatikoki eragina izango duela ikasketa prozesuan», nabarmendu du Joxe Amiama pedagogoak normaltasun berriari dagokionez. Haren ustez, oreka bat bilatu beharko litzateke eta arlo pedagogikoan arreta handiagoa ipini. Azaldu duenez, ikastetxeek metodologikoki aldaketa handiak egin dituzte, taldeko lanak, ikasketa kooperatiboak... «Eta bat-batean esan diegu ikasleei ezin direla mugitu».

«Osasun neurriei denbora bat eskaini behar badiegu eta metodologikoki dauden aukerak kentzen baditugu, horrek eragina dauka», eta gaineratu du bistakoa dela maskararen erabilerak eragina izango duela irakaslearen eta ikaslearen arteko interakzioan... «Orain arte geletako osasun segurtasunaz hitz egin da, baina noiz hitz egin behar dugu geletako segurtasun pedagogikoaz?», planteatu du EHUKo irakasleak.

Adituaren esanetan, covid-19arekin «eredu tekniko» batera itzuli da, non planteamendu akademikoak pisu gehiago duen, baina une egokia da hausnarketa bat egiteko curriculumaren inguruan. Zehaztu duenez, hausnarketa hori egiten ari da ikastetxeetan, berritzeguneekin eta ikuskatzaileekin, «ikusteko zer eta nola eman, baina ulertu behar da osasun neurriekin automatikoki curriculum gutxiago emango dela». Adierazi du maila guztietan murriztu direla edukiak, egoerak behartuta,

pandemia hasi zenetik. «Orain, ikasle asko, LHkoak, DBHkoak eta abar, konfinatuta egon dira, daude eta egongo dira, baina egoera horretan jarraitzen diote klasekoari? Bai, baina nola jarraitu? %100ean ez. Horretaz hitz egin dezakegu argi edo aurrera jo dezakegu», esan du. «Horretaz hitz egin behar da momentu honetan, eta covid-19ak horretarako aukera ematen digu, zer da ezinbestekoa curriculumean ikasgai bakoitzean? Badakit denak inportanteak direla, baina zer da nahitaezkoa? Lehengo legean derrigorrezko hezkuntzaz hitz egiten zen orain oinarritzko hezkuntza esaten da; orduan zeintzuk dira oinarritzko ikasketak?».

«Ez gaude egoera honetan klaseekin berdín jarraitzeko. Ezin da pentsatu ikasleak lau orduz maskarekin egongo direla eta errendimendua berdintsua izango dela, hori zientzia-fikzioa da, humanizatu egin behar dugu», bota du Amiamak hausnarketa bultzatzeko.

gatuta haurrentzako hobia ezta txarragoa denik. «Haurraren arabera izango da, baina horrez gain uste dugu hurrekin denbora luzeago emateko aukera izango genukeela eta denbora gehiago aprobetxatzen dela», adierazi du Sagastegik.

«Familiarekin egoteko denbora gehiago ematen digu, eta, batez ere, lanean gauden familioi jantokia derrigor ez erabiltzeko aukera ematen digu», dio Sagastegik. Gaineratu duenez, oso lan gutxitan irten ahal da 12.30ean eta kontziliazioa egin eskola jantokia erabili gabe. Zentro askotan jantokiek gabeziak dituzte, «oso espazio txikiak dira, begirale gutxi dituzte eta ez dituzte ondorengo aisialdirako espazioak». «Nire kasuan motibazioa hori da nagusiki, ez ditut jantokiak behar bezala prestatuta ikusten, eta lan eta familia bizitza kontziliatzeko, ordutegi aldaketa eskatzen dut».

Horrez gain, garrantzizkoa ikusten du, arratsaldeko txanda kenduta, harrera protokoloa errepikatu behar ez izatea, baita sarrera-irteeretan sortzen diren pilaketak gutxitzea eta jantokien erabilera murriztea. «Inkestetan ikusi dugu ordutegi trinkoarekin jantokien erabilera txikiagoa izango litzatekeela eta hobeto funtzionatu ahal izango luketela».

Ez du uste, halere, eskola jantokien etorkizuna arriskuan jarriko litzatekeenik. Eskola jantokien zerbitzua askotan gainezka dagoela aipatu du, hiru edo lau txandatan banatuta eta bazkaltzeko denbora gutxiarekin, eta hor kokatzen du jardun trinkoak zerbitzu horretan ekar dezakeen hobekuntza. Estatuko esperientziari erreparatuta, adierazi du eskola ordutegi jarraituarekin jankideen kopurua %20-30 murriztu dela eta eskolaz kanpoko jardueren eskain-



tza mantendu dela. «Ematen du hemen beldur hori daukagula, jardunaldi trinkora pasatzen bagara jantokiak eta eskolaz kanpokoak kenduko ditugula, eta inguruko esperientzietan ez da hori gertatu».

ERRENDIMENDUA JAISTEN DA

Joxe Amiama Pedagogian doktorea da eta EHUKo Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko irakaslea. Auzi honen inguruan iritzi nagusirik dagoen galdetu dio GAUR8k eta erantzun argia eman du: «Ordutegi trinkoarekin errendimendua jaitsi egiten da, eta bilakaera hori berdina da ikasketa maila guztietan, Haur Hezkuntzan zein DBHn».

Eskaera egin duten familiek hurrekin egoteko irabazten den denbora nabarmentzen dute, ez dute uste harremanetan eragingo lukeenik eta kontaktuak saihestearekin bat datorrela diote

Pedagogian doktore den Joxe Amiamaren ustez, zatitua hobia da errendimendurako, harremanetarako, euskararen erabilera bermatzeko eta arrakala soziala ez areagotzeko

Goiko irudietan, bi zentrotako ikasleak banaka klasera sartzen, osasun krisialdiaren aurrean hartu diren segurtasun neurriei jarraituz.
Idoia ZABALETA-Luis JAUREGIALTZO | FOKU



Fokua ikasketa prozesuan jarritar, Amiamak azaldu du ikerketek frogatzen dutela «zenbat eta ordu gehiago egin segidan arreta maila altu batekin, orduan eta nekatuago zaudela ikasteko prozesu horretan». Era berean, adierazi du eguerdian atseden luze bat egin ondoren arreta nabarmen handitzen dela. «Joera orokorra da, atseden hartu eta gero arreta eta errendimendua modu nabarian handitzen dira».

Ordutegien kontura, harremanetarako uzten diren espazioei ere begiratu behar zaiela azaldu du, eta ordutegi trinkoarekin espazio horiek txikitu egiten direla dio, ordutegia «oso akademikoa» delako, «ikasgai zehatz batzuen eta eduki kontzeptualen ingurukoa». Amiamaren esanetan, ordutegi mota horrek izan dezakeen beste ondorio bat da etxerako lan karga handiagoa, ordu asko libre izatearen pertzepzioaren aurka.

Joxe Amiamaren ikuspuntutik beste bi arazo gehiago daude: euskara eta arrakala soziala. Euskararen erabilera oso lotuta dago eskola esparruarekin, eta

ikastetxera bertara mugatuta dago askotan. Dionez, jardun trinkoarekin «harreman sozialak gutxiago dira, momentu gutxiago daude eta planteamendu akademiko horretan geratzen dira bakarrik».

Pedagogoak gaineratu duenez, eskolak ekitatea bermatu behar du, eta denbora murrizten bada eta planteamendua soilik akademikoa bada, ikaslearen arteko desberdintasunak are nabarmenagoak egiten dira.

«Galdera baldin bada zein den hobia, errendimenduaren aldetik hobia da zatitua eta curriculumaren aldetik, berriz, jarraitua eta ordu asko segidan... Ez dakit nork aipatuko duen», nabarmendu du adituak. Bere ustez, eztabaida ulertu behar da testuinguru zabalago batean, «jardunaldi jarraitua onena izango da batzuentzat beraien antolamendurako, baina kontziliazio arazo bat dago, hau ez da ikastetxearen arazo tekniko bat, gizarte mailan eta enpresen mailan daukagun arazo bat da», horrenbestez, hor «gako inportante bat» dago, EHUKo irakaslearen ustez.

Haurrei, txakurrei eta kaleko saltzaileei?

Amagoia Mujika
Telleria

Zelebrea da kontua. Bada euskara egoera jakinetan bakarrik erabiltzen duen jendea. Egoera horietan natural-natural ateratzen zaiela esango nuke. Konturatuta nengoen horrekin.

Txakurrarekin euskaraz egiten dutenak. «Eske oso gaizki egiten dut euskaraz eta txakurra ez da kexatzen». Hor-txe, euskara, txakur hizkuntza, hizkuntza txakurra.

Haurrekin euskaraz egiten dutenak. «Umeekin ez zait beste hizkuntzarik ateratzen. Arraroa egiten zait». Bai, niri ere bai, haur erdaldunei euskaraz egiteraino, di-da batean ikasiko dutelakoan

edota beren burmuin elastikoak nire hitzak ulertzeraino tenkatzeko gai direlakoan.

Badira gurasoak haurrei haur diren bitartean euskaraz egiten dietenak. Hori bai, behin adin batetik aurrera, helduen gauzei buruz hitz egiten hastean, akabo euskara. Euskarak gauza txikieta-rako eta txikien gauzetarako soilik balioko balu bezala.

Eta azkenaldian beste joeratxo bat sumatzen ari naiz; kaleko saltzaileekin euskaraz hitz egitea. Azal beltzean nabarmentzen diren begiak gerturatzen direnean, ordura arte barra-barra gazte-lera bizian ari ziren kuadrillak euskaraz

hasten dira. Kaleko saltzaileak euskaraz egiten die eta horrek zimikoa egiten die bihotzean. Ze gauza ederra den euskaldun izatea.

Saltzailea urrutiratzean, berriz, trago eta trago arteko aparteko hausnarketak: «Ze ondo egiten duten hauek euskaraz», «hauek bai azkarrak», «hilabete pare batean ikasten dute euskara hauek. Beste batzuk bizitza guztian hemen eta hitzik ez dute egiten euskaraz».

Ez du asko irauten txoro-haizeak. Hurrengo tragorako berreskuratzen du kuadrillak bere betiko kale-zurruteko hizkuntza. «*Mañana viene lluvia*». •

Sexualitatea ez da koitoa

Xabier Mikel
Errekondo

Baina koitoa ere bada. Zenbat eta menu zabalagoa eta askotarikoagoa orduan eta sexualitatea gozagarriagoa... Ez dira bazka bakoitzean zertan plater guztiak dastatu, gainera, irudimenaren esentzia pittin bat erantsita menuak zenbatezinak dira.

13 eta 17 urte arteko mutilen hamarretik bederatzik eta nesken erdiek pornografia sarritan kontsumitzen dute. Save the Children erakundeak plazaratu dituen datuek gurasoak, hezitzaileak eta herritarrak harri eta zur utzi ditu. Izan ere, argazkia gordina da,

nerabeek klik batera dagoen pornografia dute sexu heziketa. Argi dago sexualitatearen heziketak huts egiten jarraitzen duela.

Ikasketa berantiarra izan nuen nik, nago gehienok bezala... Eta, nire gabezien kezkak bultzatuta, herriko Paotxa irratian sexualitatearen inguruko programa egin nuen 20 urte inguru nituela. Adibidez, 6 urtetik gorakoentzako Jose Luis Garcíaren sexu-heziketa liburuak edo Luis Elberdinek “Egin”-en idatzitako zutabeak irentsi egiten nituen... Askok ikasi nuen eta, era berean, konturatu nintzen zeinen gutxi ne-

kien. Gazteek sexualitatearen oinarriak pornotik eraiki ez ditzaten pertsonaren heziketa integralaren erdigunean sexualitateak egon behar du: heziketa goiztiarragoa, guraso irekia-goak eta hezitzaileak sexualitatean ondo prestatuak.


Finean, gazteek prestakuntza kritikoa izanik soilik bereizi ahalko dituzte sexualitatearen hegiak; ederrak nola mingotsak, gustuko dituztenak nola zaborrak eta jazarpen-pornografia. Jaiotzetik baikara izaki sexualak eta senti dezakegu, plazerak senti, garaian garaikoak. •




EXPRAI



Amaia
BALLESTEROS






Unai
GAZTELUMENDI



Alai
ZUBIMENDI



Quino-ri

Alai Zubimendi 20



> Bertsoa sutan jarriko dute Chillida Lekun



GAUR8

Garai estuak dira edozertarako. Eta bertsoaren plazak ere ez du sasoi oparoa bizi. Baina Bertsozale Elkartean garbi daukate: «Osasun neurriak hartuta, kultura eta, horrenbestez, bertso plaza segurua delakoan gaude;



horregatik, txapelketako edota beste mota bateko saioak egiteko baldintzak egon ez arren, asko dira plazan egin daitezkeen emanaldiak». Bertsozale Elkartek plazaren aldeko apustua egin du, bai to-

kian tokiko antolatzaileak saioak antolatzea animatuz, bai elkarteak berak saioak antolatuz. Horietako bat da datorren urriaren 17an Hernaniko Chillida Lekun izango den saioa. Oholtza berezia izango da. Eta formatuak ere badu berezitasunik. Bertsoa Sutan izeneko saioan bertsoa eta sukaldaria izango dira protagonista. Elkarretetik azaldu dutenez, «janariaren eltzea egosten ariko dira Aitzol Zugasti eta Maialen Cano sukaldariak; eta hitzenari eragiten Andoni Egaña eta Oihana Iguaran bertsolariak. Bi plater horien arteko oreka ematen, Maite Berriozabal». Sukaldariak gastronomiari lotutako prozesu ezberdinen azalpenak emango ditu, eta bertsolariak sukaldaritzari lotutako prozesu horiek bertso-gintzara ekartzen saiatuko dira, gai jartzaileak lagunduta. Zaleei pintxo bat emango zaie saioaren hasieran, eta saioaren ondotik afaltzen gertatzeko aukera ere izango da. Saiorako sarrerak eta afarikoak www.museochillidaleku.com webgunean daude eskuragarri.



> Elikagaien segurtasunarekiko konfiantza areagotzeko

Europar Batasunak kontrol zorrotzak ezartzen ditu elikagaien benetakotasuna eta segurtasuna bermatzeko, baina zenbait azterlanen arabera, kontsumitzaileen konfiantza txikia da oraindik. «Agertoki hori iraultzeko», Basque Research and Technology Allianceko (BRTA) kide den AZTI zentro teknologikoak «Citizen Scien-



ce» izeneko ekimena gidatzen du, herritarrak inplikatu eta elikagaien segurtasuna bermatzen duten prozesuen eza-gutza handitzeko. Parte hartzeko bi modu daude: elikagaien laginak bidaltzea eta segurtasun sistemaz dagoen pertzepzioari buruzko inkesta interaktibo bati erantzutea.



> «Shot In The Dark», AC/DC paregabeen aperitiboa

Sei urte igaro dira AC/DC-k “Rock or Bust” bere azken lana argitaratu zuenetik. Ondoren, Brian Johnson abeslaria erretiratu egin zen 2016an entzumen arazoengatik, hura bezain karismatikoa den Axl Rosek ordeztu zuen. 2017an Malcolm Young gitarra jotzailea eta Angus anaiarekin batera taldearen sortzaileetakoa hil zen. Angus Youngek, “Power Up” izeneko album berria grabatze-



ko, berriro hartu ditu Johnson, 73 urtekoa, Cliff Williams baxu jotzailea, “Rock or Bust” diskoaren biraren ondoren erretiratu zena, eta Phil Rudd bateria jotzailea, –justiziarekin zituen arazoak konpondu ondoren–. Diskoa azaroaren 13an egongo da eskuragarri, baina joan den asteazkenean “Shot In The Dark” abestia argitaratu zuten aurrerakin gisa. Beti berezia, *AC/DC is back.*

> Munduko 50 jatetxe onenetatik sei euskaldunak dira

Euskal Herriak planetako 7.800 milioi biztanleetatik hiru milioi besterik ez ditu, baina planetako 50 jatetxe onenetatik sei euskaldunak dira, argitaratutako azken zerrendetako baten arabera. Euskal gastronomiaren kalitatearen gaineko zalantza izpirik ez dago, baina argitaratutako azken rankingetako batek, Eneko Axpe euskal zientzialariak Twitter-en eman duenak, gainera, haren potentzia berretsi du.



Sailkapenetan espezializatutako atari horretan, munduko hirugarren postuan Bittor Arginzonizek Bizkaiko Axpen duen Etxebarri erretegia ageri da; zazpigarrenean, Andoni Luis Adurizen Mugaritz (Errenteria); 14.ean, Eneko Atxaren Azurmendi (Larrabetzu); beste erretegi bat ageri da 30.ean, Elkano (Getaria), eta 32.ean Josean Alijaren Nerua Guggenheim. 16. lekuan, Alain Ducasse bearnesa dago, Parisko Athénée plazan duen jatetxearekin.



> «Gaztezulo», 20. urtebetetzea ospatzeko prest

«Urriak ilunak izan ohi dira», diote “Gaztezulo”-ko kideek; hala ere, eurek festa giroan biziko dute aurtengoa. “Gaztezulo”-ren 20. urtebetetzea nahi luketen moduan ospatzerik ez badute ere, aldizkariak hainbat ezusteko eskainiko omen ditu. Aldizkariaren alde batek “Gaztezulo” zeneko diseinua izango du eta 20 urteetako ibil-



bideari errepasoa egingo dio. Oihana Egañak aldizkariarentzat egindako ilustrazioak eta Gartxot Unsainek urteurrenerako egin duen bertsoa ere agertuko dira. Aldizkariari buelta emanda, beste azal bat agertuko da, gaur egungo “Gaztezulo” aldizkariarena, hain zuzen. Bertako protagonista Aitziber Garmendia da.



Gorka Zozaia -@zotz_
Kimikaria

Ukabil bakarrera

arkitektura / zientzia / sexistentziak

3 BEGIRADA:

Gero eta gertuago daude Jupiter eta Saturno. Zelatan nabil abuztutik, abenduaren 21ean bat egingo dutela jakin nuenetik, eta bai, gero eta gertuago daude azken hilabeteak gu zelatan bezala egon diren zeru beltzaren bi begiok. Zaila da begi bistaz antzematea, poliki ari dira hurbiltzen begi zelatariak. «Jupiter potoloa, txikia Saturno», errepikatu dut zelatariak norbaitekin zelatatu ditudan bakoitzean. Edo be-soa altxatuta, begi bat itxirik, bien arteko distantzia neurtzen harrapatu nauenari; «gerturatzen ari dira, eta santotomas egunean lerratu egingo dira Lurrarekin». Bide batez, zeruko distantziak eskuarekin nola neurtzen ditudan azaltzeko baliatu izan dut aukera: eskua zabal-zabalik, 20-25 gradu daude atzamar txiki eta potoloaren artean. Heavyek bezala adarrak jarritz, 15 gradu txikiaren eta erakuslearen artean. Ukabilak alde-rik aldera 10 gradu, atzamar potoloak 2 gradu eta txikiak gradu bat. Dena gutxi gorabehera, baina nahikoa planetok gerturatzen ari direla antzemateko.

Neguko solstizioaren egun berean ezkutatuko da Saturno Jupiterren atzean eta ilundu bezain pronto izango da ikusgarri hego-mendebaldeko ortzi mugan. Ez dira faltako fenomeno astronomikoa profezia magikoekin lotuko dituztenak, baina ez, gutxi gorabehera 20 urtean behin lerratzen dira Lurra, Jupiter eta Saturno. Marte, bestal-

de, oso gertu eta oposizioan dugu asteon, gau osoan ikusgarri, ez dugu hilabete honetan bezain ongi ikusiko datozen 15 urteetan. Hori guztia, Drakonida ozar-izarra (hala esaten omen zaio euskaraz izar euriari) ikusgarri den aste berean, nahiz eta, tamalez, egunotan ur-euria izan nagusi. Iparrizarraren inguruan, Hartz Txikia inguratzen duen Dragoiaren buruan, Vega izarretik gertu, irradiatzen da ozar-izar hori, iparrerantz, zeruaren sabai aldera begiratzu topatu ahalko ditugu beraz.

Berriz ere jarri zaituztet bada gaueko zeruari begira, hodeitzak uzten duenean zer begiratu bada-goelako beti, baina eta gainera asteon jakin dugulako Fisikako Nobel saria aurten ere zeruaren azterketarekin lotuta esleitu dela; zulo beltz misterioetsuen ikerketa saritu da hain zuzen ere. Sariaren erdia, zulo beltzak erlatibitatearen teoria orokorraren ondorio zuzena direla frogatu zuen Roger Penrose mate-

matikariak eraman du, Einstein hil eta hamar urtera, 1965ean, argitaratu zuen lan esanguratsuagatik. Ordutik unibertsoaren azterketan funtsezkoak bilakatu dira oraindik ezezagun eta egungo fisika eskuan esplikaezinak diren dentsitate infinituko singularitateok. Astroen mugimenduak aztertuz eta grabitazio legeak eta erlatibitatea eskuan baina, ikusten ez diren objektu supermasiboak egon behar direla ondorioztatzen da. Hain zuzen, gure galaxiaren erdian egon beharko litzatekeen zulo beltza antzemateagatik –Sagitario A* deritzan objektu supermasibo– egokitu zaie sariaren beste erdia Reinhard Genzel eta Andrea Ghez ikerlariei. Curie (1903), Goepfert-Mayer (1963) eta Stricklanden (2018) ondoren, Ghez izango da Fisikako Nobel saria jasoko duen laugarren emakumea, sari berbera eraman duten 207 gizonen aurrean. Ukabil bakarra ez da nahikoa handitzen jarraitzen duen arrakala horri tamaina hartzeko. •



Urrian halakoa izango da hodeitzak ezkutatuko duen hegoaldeko zerua.

GAUR8

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Koherentzia pixka bat

Egoera berriez, ondo ulertzen ez ditugun horiez, hitz egiteko, metaforak erabiltzen ditugu askotan. Ez dugu asmatzen gure inguruan gertatzen ari dena zer den zehatz esaten, eta, horren orde, den hori zeren antzekoa den esaten dugu. Zehatzagoa, zurragoa, den gairen bati buruzkoak hartzen ditugu iheskorrago, ulertzen zailagoa, den beste gai horri buruz hitz egiteko. Pandemiaz hitz egiteko, ohiko bihurtu da gerra-kontuez aritzea. Ez dugu esaten birusa aztertu, sendabidea aurkitu eta gizarte-larrialdia konpondu behar dugunik. Esaten dugu denok bat egin behar dugula borroka, birusari irabazi egin behar diogula, eta gure armarik onenak erabiliko ditugula gaitza gainditzeko. Birusa arerio bihurtu dugu.

Beste bat da niri behin eta berriz burura etortzen zaidan metafora, orde. Martxoko lehen itxialdi-aste haie-tatik, askotan pentsatu dut bidegorrian bezala gabiltzala. Bai, bidegorrian, badakizu: oinez zoazenean ulertezina egiten zaizu autoen zabarkeria, eta iruditzen zaizu ziztu batean igarotzen direla aldamenetik, zebra-bide bakoitzean oinezkoari presa sartu nahian. Eta bizikletan doazenak ere arin, arinegi, eta gertuegi doazela aukeran. Autoan zoazenean, orde, ezin duzu ulertu nori bururatu zaion bidegorria non eta hortxe jartzea; eta jendea zebra-bide erdian kontutan, patxada betean, enbarazuan. Eta txirrindulariak, ene, autoen eta oinezkoen eskubideak denak berentzat hartuta: bidean behar adina tarte eskatzen dute beraientzat, baina gero ona dute edozein zirrikitu beraiena egiteko. Ez al dute nahikoa mendi-bide Euskal Herrian bizikletan ibiltzeko? Eta bizikletan doanari irudituko zaio ez daukala errespeturik autokoak, bere presak zure presa egin nahian, eta ez daukala errespeturik oinezkoak, bide bazterrera apartatu ez eta abiadura makalarazten dizunean.

Izango da jende presatiagoa, jende patxadatsuagoa; izango da bideak autoentzat soilik nahi dituenik, eta

Euskal Herri osoa bidegorri egin nahiko lukeenik. Baina, esango nuke, patxada exijitzen diogula besteari gu oinez gabiltzanean, ziztua autoan goazenean; oinezkoak etxera bidali nahi ditugula gidatzen ari garenean; eta, autoak erre, paseoan gabiltzanean.

Birusaren gerran ere, koherentzia izan da biktima handienetarikoa. Ez gara denak berdinak: batzuek us-teko dute zintzo bete behar direla arauak, beste batzuk malguagoak izango dira. Larriaren aurrean, autoritateari men egin behar zaiola pentsatuko dute askok; noiz eta orain, agintzen dutenekin inoiz baino kritikoago izan beharko genukeela usteko dute beste askok. Lanean ari denari berea egiten utzi behar zaiola, edo, kontrara, esaten digutenari sinesgogor egin eta dena dudatan jarri beharko genukeela. Pentsa dezakezu era batera edo bestera... baina ezin dituzu denak pentsatu, komeni arabera. Koherentzia pixka bat.

Txakur-jabeen eguneroko joan-etorriak minututan eta kilometrotan neurtu zituzten haiek ikusi genituen, haurrei irtetea egokitu zitzaizenean, familiarekin ibilbide turistikoak egiten herri inguruan; su txikia eta lo-zakua falta zituzten, bazkaltzera edo lotara erretiratu beharrik ez izateko. Gobernuekin haserre dabil asko eta asko, egoera konpontzeko nahikoa neurri hartu ez dutelako; baina ez dute maskararik jarri nahi, horrek ez du-eta ezertarako balio, eta ez dute garaiz erretiratu nahi, arratsaldean kutsatzen ez dena ez omen da-eta gauean kutsatuko.

Askori entzun diet dagoeneko ez direla medikuek, zientzialariek eta gainerako aditu-usteen diotenaz fio. Artaldean tentel nahi omen gaituzte. Gezurrak esaten omen dizkigute. Ez omen dago nahikoa frogarik maskarak erabiltzearen alde. Txertoa lortzeko norgehiagokan, ziurtasunik batere gabe egiten omen dute aurrera. Ebidentzia nahikorik gabe ari omen dira irtenbideak proposatzen. Facebooken irakurri omen dute. •

Birusaren gerran ere, koherentzia izan da biktima handienetarikoa. Ez gara denak berdinak



Argazkiak: Jon URBE | FOKU

Dantzari eta koreografo katalanak gorputzean adina elastikotasun dauka begiradan. Horregatik, askok mugak ikusten dituzten tokian gaitasunak ikusteko moduko begirada malgua eta zorrotza garatu du.

Bartzelonako Institut del Teatre zentroan jaso zuen formakuntza eta Londresen hamaikakada luzea eman zuen hango dantza konpainietan lanean. Bartzelonara bueltan, garbi zeukan bideari jarraituz, senak aginduta. Dantza integratuan edo inklusiboan buru-belarri sartuta dabil 2011. urteaz geroztik, Liant La Troca dantza kolektiboarekin. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen osatua dago nagusiki, adin guztietako dantzariak, kontatu nahi dituzten tristurak eta pozak dantzaren hiz-

kuntzan kontatzeko gaitasuna garatu duten sortzaileak denak. Duela aste pare bat Errenterian izan da ikastaro bat eskaintzen.

Nola iritsi zinen dantza integratu edo inklusibora?

Londresen izan nuen lehen harremana. Bertan eman nituen hamar urte dantza konpainia batean. Eta nire dantza konpainia horren bidez ezagutu nituen Londresen une horretan dantza integratuaren alorrean aitzindariak ziren sortzaileak. Bizkarrezurra pus-

«Gorputzaren politika aldarrikatzen dut; gorputz mota asko daude eta denak dira baliagarriak»

JORDI CORTES MOLINA

KOREOGRAFOA ETA DANTZARIA

30 urteko lan ibilbidea du. Kiakahart eta Alta Realitat elkarten sortzaile eta zuzendari artistikoa, baita Liant La Troca dantza kolektibo integratuarena ere.

Amagoia Mujika Telleria

katu zuen dantzari bat zen konpainiaren arduraduna. Astebetez dantza tailer bat zuzentzera bidali ninduten konpainia horretara. Nik ez nekien zer topatuko nuen. Iristean, gorpil aulkian zeuden bi lagun, hankarik ez zuen mutil gazte bat eta beste hiru zupalau dantzari topatu nituen. Hasieran sekulako izua sentitu nuen. «Zer egingo dut nik hemen?». Baina aurrera egin beharra zegoela erabaki nuen eta tailerra hasi nuen aukera zailenetik. Hankarik ez zuen mutilarekin hasi nintzen

klasea sortzen. Probak eginez, nire zalantzak disimulatuz eraman nuen aurrera astebe-teko tailerra. Niretzat sekulako esperientzia izan zen. Aste hartan burua ireki zitzaidan erabat. Oso aberasgarria izan zen; giro paregabea sortu eta sorkuntzaren ikuspuntutik basatia izan zen, sekulakoa. 1993-1994 urteen inguruan zen.

Eta zure konpainiara buelta-tu zinen.

Bai. Handik denbora batera berriz bidali ninduten beste tailer bat egitera. Kasu horretan, mendekotasunak eta arazo psikiatrikoak zituen jendearekin lan egiten zuen terapeuta batekin batera aritu behar nuen, Londres kanpoaldeko ospitale batean. Dibertsitate intelektualak eta psikologikoak zituen jendearekin lan egitea sekulakoa izan zen, baina zirrara handia eragin zidan. Muturreko egoerak bizi zituen jendea zen eta gogoratzen naiz iluntzean etxera iritsi eta negar egiten nuela.

Esperientzia hark gogor as-tindu ninduen. Baina konturatu nintzen zein garrantzitsua den hurbiltasunetik lan egitea. Hurbiltasun fisikoa oso gaizki zeraman jendea zegoen talde hartan, begiratuarekin bakarrik ez gerturatzeko adierazten zuena, baina lortzen bazenuen benetan eskua hel-tzea pertsona horiei, energia negatibo hori guztia desegin egiten zen. Basatia zen. Hitzik gabe komunikatzeko modu bat da, azalaren eta energiaren bitartez. Hori ikasi nuen espe-rientzia hartan.

Eta Bartzelonara bueltatu zi-nen esperientzia horiek mo-txilan hartuta.

«Era guztietako dibertsitatea duen jendeak parte hartzen du konpainian: itsuek, gurpil aulkian daudenek, esklerosia dutenek, garun paralisia dutenek... Adin guztietako jendea»

«Dibertsitate funtzionalaren aurrean, nire ezjakintasuna eta ezagutza gabezia izan dira sentitu ditudan mugak. Jakin-mina sortu izan dit beti: Zer egin dezakegu zuk eta biok elkarrekin?»

«Helburua da ahalik eta erreminta gehien eskaintzea norberak bere ahotsa topa dezan; gorputzaren bidez agertzen den ahotsa. Horrez gain, gorputz desberdinak ezagutu eta baloratzeko bidea eskaini nahi dut»

Bai, Londresen 11 urte eman eta gero, Bartzelonara buelta-tu nintzen 2001. urtean. Laguna nuen Venezuelako dantzari batekin hasi nintzen lanean. Hiesaren ondorioz itsu geratu zen lagun hori, hilzorian egon zen bitan eta fisikoki oso ahul zegoen. Dantzaren mundutik erretiratuta zegoen eta bu-ruan sartu zitzaidan berarekin proiektu bat egin behar nuela. Baiezkoa eman zidan eta “De Cara” izeneko proiektua egin genuen. Bera zen protagonis-tetako bat, bere esperientzia-ren berri ematen zuen, dantza egiten zuen... Proiektuak har-rera ona izan zuen. Denak erretiratutzat jotzen zuten pertsona bat oholtza gainean indartsu eta ahaldunduta ikustea sekulakoa izan zen.

Proiektu horren arrakasta ikusita eta nire senari jarraituz, bide horretan segitu nahi nuela erabaki nuen. Londresko Candoco dantza integratu-ko konpainiako Adam Benja-min gonbidatu nuen. Laguna dut. Eta dantza integratuaren inguruan bi astetako tailer trinko bat antolatu genuen. Azkenean Estatuko eta kanpo-ko jendea animatu zen, batzuk dibertsitatearekin eta beste batzuk ez, eta 30 bat laguneko taldea sortu genuen. Bi aste horietan argia ikusi genuen. Harrituta geratu ginen bi aste horietan sortu zen konexioa-rekin eta magiarekin. Eta nire bidea hori zela erabaki nuen.

Eta talde bat sortu zenuen Bartzelonan.

Bai. 2011. urtean tailer hartan parte hartzen aritu ginen zen-baitek talde bat sortu genuen, Liant La Troca. Hasiera batean astean behin elkartzen ginen eta orain, berriz, egunero el-kartzen gara urte osoan. Abuz-

tuan bakarrik hartzen dugu atsedeen.

Era guztietako dibertsitatea duen jendeak parte hartzen du konpainian, itsuek, gurpil aul-kian daudenek, esklerosia du-tenek, garun paralisia dute-nek... Adin guztietako jendea elkartzen gara, denak elkarre-kin, ez dut mailarik bereizten. Dantza egiteko eta sortzeko el-kartzen gara eta ikasturte amaieran lan bat eskaintzen dugu jendaurrean. Katartikoa da.

Zuk dibertsitate funtzionala daukan jendea ikustean, tra-bak ikusi beharrean gaitasu-nak ikusten dituzu. Mugak beharrean, aukerak.

Bai, baina inoiz ez dut muga-rik ikusi. Dibertsitate funtzio-nalaren aurrean, nire ezjakin-tasuna eta ezagutza gabezia izan dira sentitu ditudan mu-gak. Eta jakin-mina sortu izan dit beti egoera horrek: Zer egin dezakegu zuk eta biok el-karrekin? Nola dantzatu deza-kegu elkarrekin? Zer sortu de-zakegu?

Pertsona horren gaitasunak ikusten ditut eta gaitasun ho-riek nola bultzatu ditzakedan pentsatzen jartzen naiz. Bada teorian gaitasun guztiak di-tuen jendea ezer sortzeko gai ez dena, potentzialtasunik ez daukana, gorputz perfektu ho-ri barrutik hutsa balego beza-la. Eta alderantziz noski, dibe-rtsitatea duen jende askok sekulako gaitasunak dauzka. Niretzat bakarrak dira, erpepi-kaezinak. Hori da ikusten du-dana.

Baina kontziente zara zure begirada hori ez dela ohiko-ena. Normalean jendeak di-bertsitatea ikusten duenean mugak ikusten ditu.

Bai, baina askotan ez delako begirada hori aldatzeko ahale-ginik egiten. Gure taldean ba-dugu garun paralisia daukan emakume bat, oso azkarra de-na eta unibertsitate mailako ikasketak dituen. Hitz egitea kostatu egiten zaio. Monologo bat dauka, oholtzara ateratzen da eta hitzen inguruan hitz egiten du. Jendeak entzuteko eta ulertzeko denborarik ez duela hartzen esaten du mo-nologoa.

Behin, entsegu bat ikusi on-doren, antzerki zuzendari ba-tek esan zidan ez ziola ezer ulertzen monologoa egiten zuenari. Nik erantzun nion ez ziola ulertzen ez zuelako aha-leginik egiten, oso azeleratuta zegoelako eta oso azkar hitz egiten duen jendearekin ohi-tuta zegoelako. Esan nion ez zuela hartu monologo hura ulertzeko denborarik.

Monologoaren emanaldia-ren egunean barkamen eske etorri zitzaidan antzerki zu-zendari hori. Dena ulertu ziola esan zidan. Noski, eseri egin zen, erlaxatu eta monologoa entzuteko denbora hartu zuen. Orduan bai ari zen en-tzuten.

Dantzaren munduan gor-putz perfektuekin aspertu egin zinela irakurri izan di-zut.

Bai, dantzan estetika bat bila-tzen da, teknika bat, marra bat, forma bat. Batzuetan per-fekzio hori edukiz hutsa dago-ela iruditzen zait. Ni dantzan dagoeneko adin batekin hasi nintzen eta hasieratik arrazoi bat, eduki bat, helburu bat to-patzen saiatu naiz, hori baita mugitzen eta hunkitzen naue-na. Bilaketa horrek markatu du nire ibilbidea betidanik. Eta nire tailerretara gertura-



tzen direnak bide horretan sumatzen ditu; esateko, askatzeko, kontatzeko zerbait dauka –mamuak, beldurak, blokeoak, poesia– eta hori dantzaren bidez egin nahi dugu. Horregatik estetika edo perfekzioa lehenesten diren lanetatik eta konpainiatatik urrunxeago ibili naiz.

Tailer edo ikastaro bat eskaintzen duzunean, zein da helburua?

Helburua da ahalik eta erreminta gehien eskaintzea norberak bere ahotsa topa dezan. Gorputzaren bidez agertzen den ahotsari buruz ari naiz. Horrez gain, gorputz desberdinak ezagutu eta baloratzeko bidea eskaini nahi dut, denak baliagarriak baitira. Gorputzaren politika aldarrikatzen dut; gorputz mota asko daude eta denak dira baliagarriak. Batzuetan, baita dantzan ere, gorputzaren diktadura ema-

Duela aste pare bat Euskal Herrian egon da Jordi Cortes, Errenteriako Dantzagunean dantza integratuaren inguruko ikastaro trinko bat eskaintzera etorri baita. Alboko orrialdean, ikastaroan jasotako zenbait irudi.

Jon URBE | FOKU - GAUR8

ten da eta horren kontra egin behar da.

Neroni konturatzen ari naiz horrekin. Dagoeneko badaukat adin bat eta lesioak izan ditut eta nire gorputzak muga gehiago dauzka orain. Baina horrek aukera eman dit ditudan gaitasunak indartzeko eta baita beste gaitasun batzuez jabetzeko ere. Adibidez, istripu baten ondorioz min hartu nuen belaunean. Justu lan bat estreinatu behar genuen eta nire pertsonaiak egon egin behar zuen, presentzia estetiko bat balitz bezala. Emanaldiak bi orduko iraupena zuen, eta egon egin behar nuen. Eta primeran pasatzen nuen, oso interesgarria zen. Dantzari bikote basati bat zegoen eta ni haien inguruan zebilen mamu baten antzekoa. Baina hori, adibidez, istripu baten ondorioz izan zen. Muga batek nire gaitasun batez jabetzen lagundu zidan; egoten eta energia

beste modu batera lantzen lagundu zidan.

Gurpil aulkian dagoen emakume gazte bati entzun diot: «Istripua izan ondoren, nire terapeutak esan zidan kontaktu fisikoa izango zela gehien faltan sumatuko nuen. Jendeak ez duela ukitzen gurpil aulkian doana. Arrazoia zuen»

Egia da hori. Kanean bertan, gurpil aulkian dagoen norbaitengana gerturatzen gara normalean laguntza eskaintzeko, bidea pasatzen laguntzeko adibidez. Baina aulkia ukitzen dugu, ez pertsona bera. Gure tailerretan egoera gogorak ikusi ditut. Kontaktu fisikoa asko bultzatzen dugu gure dantzetan eta gertatu zait jendea negarrez hastea ukitzen duzunean. «Ni soilik ukitzen naute garbitzeko, oheratzen laguntzeko, jaten emateko, ohetik altxatzen laguntzeko.

Inoiz ez naute ukitzen ukitu nahi nautelako». Sekulakoa. Benetan hunkigarria da niretzat kontaktu fisikoa bitartez hainbeste gauza esnaraztea.

Dantza integratuak intentsio artistikoa ere badauka, ezta?

Bai. Niretzat egiten dudan guztiak helburu artistikoa dauka. Are gehiago, gure taldeetatik artistak sortzea bultzatzen dut. Eta sortu dira. Mugimendu handia dago eta dibertsitatea duten sortzaileak han eta hemen ari dira lanean. Benetan mugimendu interesgarria sortzen ari da. Dantza integratua sekulako ahalduntze ariketa bat da.

Eta zer-nolako eragina dauka ikuslearengan?

Oso interesgarria da sortzen duen gogoeta. Niretzat garrantzitsua da egiten duguna jendaurrean jartzea, egiten duguna ikusaraztea. Eta gehien gustatzen zaidan agertokia kalea da. Antzoki batean egiten duzunean dantza integratua, jendeak badaki espresuki zer ikustera doan eta nolabait begirada baldintzatua daramate. Kanean dantza inklusiboko emanaldi bat topatzen duzunean, ez duzu espero, ez daki zu zer topatuko duzun eta ematen den txokea interesgarriagoa da. Haurren erreakzioa, adibidez, sekulakoa izaten da. Galderak egiten dituzte, normalean helduak egiten ausartzen ez diren galderak. Osasuntsua da galdetzea, ukitzea, jakin-mina asetzea. Horixe da nik egiten dudana nire tailerretan; gerturatu eta dibertsitatea daukan pertsona ezagutzeko ahalegi-na egin.

Egungo eskaintzan tokia topatzen ez duten nerabeentzat jarduera fisikoa egiteko aukera erakargarriak sortzeko proiektua

Bizipoza, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa eta Artaziak lehen aldiz elkartu eta “Ari! Sormena eta Mugimendua” proiektua jarri dute martxan. Kezka baten bueltan elkartu dira hiru eragileak: 12 urtetik aurrerako gazteek nabarmen galtzen dute jarduera fisikoa egiteko interesa. «Adin horretatik aurrera egiten zaien kirol eskaintzak maiz ez du bat egiten beraien motibazioekin, edota inguruko kirol elkarteetako jarduerak ez zaizkie batere erakargarri egiten, normalean eskaintza horiek lehiara bideratuta egoten baitira eta neskak eta mutilak bereizten baitituzte. Era berean, dibertsitate funtzionala duten gazte askok ez daukate eskaintza alternatiborik, espazio ludiko inklusiboetan ekintzak egin eta esperientziak partekatzeko», azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek.

“Ari! Sormena eta Mugimendua” proiektuak gorputzarekin, arteekin eta mugimenduarekin lotutako ekimen berritzaile bat sortzea du helburu, izaera inklusiboa eta genero ikuspegia izango duena, 12 eta 21 urte bitarteko gazteei zuzendua. Nolabait,

egungo eskaintzan tokia topatzen ez dutenei eskaintza erakargarri bat egitea da helburua.

«Nerabeetan jarri nahi dugu begirada batez ere. Aldaketa garaia da nerabezaroa eta garrantzitsua da jarduera fisikoa egiteko espazio irekiak eta libreak eskaintzea», esan dute bultzatzaileek.

«Lehiaketatik kanpo, esperimintatzeko eta norbere burua topatzeko tokiak eskaini nahi ditugu. Eta onena litzateke egungo eskaintzaren osagarri izatea aukera berri horiek. Badago lehiaketan edo egungo eskaintzan tokia topatzen ez duenik. Haien zatitoki ez egoteak ez du zertan esan nahi jarduera fisikoa egiteari utzi behar diotenik, ezta? Goazen aukerak sortzera», gaineratu dute.

Genero ikuspegia eta gizarte inklusioa zutoin gisara jarrita, proiektuak metodologia bat sortu nahi du. Horretarako jarduera pilotu bat jarri du martxan, bide berriak nondik eta nola ireki daitezkeen hausnartzeko. Etorkizunera begira jarduera pilotu hori Gipuzkoako udalerri guztietara zabaltzea da

asmoa, herri guztietako gaztetxoek jarduera fisikoari lotuta jarraitzeko modu erakargarria izan dezaten.

Proiektu pilotua programazio modulu bat sortzean datza. «Hiru hilabeteko iraupena izango du eta progresiboki, modu dibertigarrian, elkar heziz, kooperatuz eta inklusiotik, gizartearen dagoen behar bati erantzuteko proposamena osatuko da, dibertsitatean arreta jarritz», adierazi dute sustatzaileek.

Ekimen horren bitartez kalitatezko ariketa fisikorako aukera bermatu nahi zaie egungo kirol eskaintzetara egokitzen ez diren pertsonei. Proiektuak helburu garrantzitsuak dauzka; «parte hartzaileen ongizate psikofisikoa sustatzea, gaitasun motorrak hobetzea, talde komunikaziorako aukerak zabaltzea eta adierazpen bideak erraztea artearen eta mugimenduaren bitartez». Era berean, euskararen erabilpena eta genero ikuspegia proiektua zeharkatuko duten lerro indartsuak izango dira.

Proiektu pilotua hiru urratsetan gauzatuko da. Lehenengoa duela aste pare bat garatu zen; Jordi Cortes

koreografo eta sortzaileak gidatutako dantza inklusiboaren inguruko ikastaro trinkoa. Tailer teoriko-praktikoa Erretereriako Dantzagunean eskaini zuen sortzaileak eta harrera oso ona izan zuen. «Gizarte eremuekin eta mugimenduarekin lotura duten pertsonei zuzenduta zegoen; ezberdintasunetik, bestearen berezitasunetik, sortzera gonbidatuz».

Bigarren pausoa hamar saio praktiko izango dira, gehienez jota 12 lagunez osaturiko talde mistoarekin. «12 eta 21 urte bitarteko gaitasun anitzeko gazte horiek, sormen laborategi gisa pentsatutako gunean mugimenduarekin eta gorputzarekin lotutako dinamika landuko dituzte», adierazi dute.

Proiektuaren hirugarren atalean material pedagogikoa sortuko da, aplikatu den metodologia jaso eta proiektua errepikatzeak aukera ahalbidetuko duena.

Proiektua Irizarrek eta Orona Fundazioak babestu dute eta Erretereriako Dantzagunearen laguntza izan du.



Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua



ENKARGUK

Eroso eta erraz erosteko zerbitzua, Azpeitiko merkataritza sendotzeko

Martxotik dago Euskal Herrian covid-19 gaixotasuna, baita berekin ekarri duen askotariko krisia ere: ospitaleak mukuru, jendea etxean edo kalean tentuz, jendartea ziurgabetasunez beteta eta instituzioak, hobeto edo okerrago, berehalako egoerari aurre egin nahian. Azpeitia ez da salbuespena izan eta hango Udalak, beste askok bezala, momentuan momentuko erantzunak eman behar izan zituen. Horrez gainera, baina, egoerak luze joko zuela antzemanda, inprobisaziotik haragoko egitasmoak ere behar zirela sumatu eta berehalakotasunak

eskatzen zituen laguntza lerroez gain, maiatzaren 21ean epe ertainerako ekintza plana bilduko zuen Sustapen Ekonomikorako Plan Integrala onartu zuen, besteak beste, herriko merkataritza eta lehen sektorea indartzea helburu zuena.

JENDARTEA / Xabier Izaga Gonzalez

Azpeitiko merkataritza eta lehen sektorea indartzeko egitasmo berritzaile bat abiatu dute, teknologia berriak baliatuz erosketak modu erosoan egin eta kalitateko produktuak jasotzeko aukera ematen duen zerbitzua. Etxean, saltokian edo kontsignan jaso ahal izango dira Whatsapp bidez egindako erosketak.

Zerbitzuaren aurkezpena. Azpeitiko Udal

Udalaren eta Gasteizko Gobernuaren dirulaguntzak baliatuta, Bertan Azpeitiko Merkatarien Elkarteak, Dendartean Gipuzkoako Merkataria, Ostalaritza, Zerbitzu Enpresa eta Autonomo Elkarten Taldeak eta Urkome Uro-

la Kostako Landa Garapeneko Elkarteak ekimen berritzaile bat antolatzeke aukera izan dute: Enkarguk zerbitzua. Osasun egoerak bultzatuta sortu dute, baina pandemiatik harago, elikadura arloko saltokiei eta azokako ekoizleei salmentan bide berriak zabaltzeko aukera paregabera da, erosketak herrian bertan egitea errazten duen zerbitzua baita.

Proiektu pilotua da aste honetan bertan abiatu duten ekimena. Konfinamenduan zenbait saltoki bestelako salmenta moduei heltzen hasi ziren, eta Dendartean elkarteak behar bat sumatu zuen, merkatua, mehatxuak eta teknologia berriak kontuan izanda, herriko saltokiak indartzeko zerbitzu bat sortzeko beharra, hain zuzen.

Usoa Etxeberria zerbitzuaren kudeatzaileak dioenez, Azpeitia da Euskal Herrian hainbat saltoki eta azokako ekoizle biltzen dituen zerbitzu hori egunero eskaintzen duen lehen herria. Beste zenbait herritan ere badaude antzeko ekimenak, baina ez hain «osoak», azokako produktuak baino erosterik ez dagoelako, edo asteen egun batera mugatzen direlako.

Joan den astean aurkeztu zuten egitasmoa eta astelehen goizean hasi zitzaizkien herritarren eskariak iristen.

«ZUK EROSI, GUK ERAMAN»

Esandako helburuekin batera, herritarrei Whatsapp bidez herriko elikadura saltokietan eta azokako postuetan erosketak egitea erraztu nahi die zerbitzu horrek. Hartara, erosketak modu eroso eta errazean jaso eta ordaintzeko aukera ematen die. Herritarren eskariak jaso eta berehala, proiektuan parte hartzen duten saltoki eta



Enkarguk zerbitzuaren logoa.
GAUR8

ekoizleekin koordinatu ondoren, banatzaileak etxerik etxe banatzen ditu erosketak triziklo elektriko batean, edo kontsignan edo saltokian bertan entregatzen dira. Usoa Etxeberriak dioenez, gainera, zerbitzu bizkorra da, goizez eskatzen dena arratsaldean entregatzeko aukera baitago.

Egitasmoaren aurkezpenean, Bertan elkarteko teknikari Xabier Aldalurrek zerbitzuaren hainbat onura azaldu zituen, hala nola Azpeitiko saltokietako kontsumoa eta tokiko produktuak indartzea, kontsumo eredu jasangarria sustatzea, herrian erosteari balio erantsia ematea, lehenengo eta hirugarren sektorean ekintzailatza sustatzea eta erreferentziazko egitasmo bilakatzea. Aldalurren ustez, proiektua ondo egokituta dago oraingo egoerara: «Egungo osasun krisiak zerbait irakatsi badigu, egoera berrira egokitzeko ikasi behar dugula izan da. Covid-19aren hedapenaren aurrean har genezakeen neurri egokienetakoa da Enkarguk martxan jartzea herritar askoren beharrak asetzen dituelako. Familien, adinekoen edo mugikortasun mugatua duten pertsonen beharrei erantzuten die egitasmoak, erosketak egiteko erraztasunak eskainiz.

MERKATARITZA ETA LEHEN SEKTOREA

Nagore Alkorta alkateak ere parte hartu zuen ekitaldian. «Bertako merkataritza babes-teaz gain, herri bizi bat izateko herriko merkataritza txikien alde egiteko konpromiso sendoa dugu. Azpeitia izango bada, bizia izan behar du, eta bertako merkataritza pieza garrantzitsua da gure bizitasun horretan», esan zuen, eta proiektua herriko ekonomiari bultzada emateko egokia izango den us-

SUSTAPEN EKONOMIKORAKO PLAN INTEGRALA

Maiatzaren 21ean Sustapen Ekonomikorako Plan integrala onartu zuen Azpeitiko Udalak aho batez, covid-19ak eragindako kalte pertsonal eta ekonomikoak arintzeko laguntza lerroen gaineko irizpideak ezarrita.

Nagore Alkorta herriko alkateak azaldu zuen osasun egoerak eragindako berehalako beharrak asetzeko laguntza lerroez gainera, epe ertainerako ekintza plana ere badela: «Alarma egoerak sortutako kalteak arintzeko urgentziazko erabakiak hartu behar izan ditu Udalak, herritarren bizi kalitatean ahalik eta eragin txikiena egin dezan. Orain, ordea, aurrera begira erabakiak hartzeko ordua da».

Hamabi lan lerroko ekintza plana osatu zuten, hainbat arlotako arazoei erantzuna emateko. Herritarren ekonomian eragina izatearekin batera, tokiko ekonomia eta industria bultzatzeko baliabi-

deak jartzeko helburua du planak. Epe ertainean, abian jarri gabe zeuden lerroak banan-banan abian jartzea da Udal Gobernuaren lana.

Plana adostasun osoz onartu zen, eta elkarlanean landu zuten: «Herriak eta momentuak alderdion elkarlana eskatzen dute, eta plana osatzeko bilerak egin ditugu eta ekarpenak jaso ere egin ditugu. Eta hori eskertu nahi dut», esan zuen alkateak orduan. Urrats garrantzitsutzat jo zuen elkarlanerako akordioa: «Pozgarria da horrelako gai garrantzitsu batean bat egitea. Hitz eginez akordioak lortzeko gai garela erakutsi dugu. Eta egoera konplikatu honi erantzuna emateko baliabideak eta aukerak ditugu».

Amaia Etxeberria oposizioeko eleduna ere pozik agertu zen elkarlan hori dela eta: «Orduak sartu ditugu plan hau adosteko eta gure hainbat proposamen

aintzat hartu dira. Etorri den ekaitzari aurre egiteko aterki bat sortu dugu, eta ados gaude». Dokumentu irekia denez eta puntu batzuetan ados ez egon arren, elkarlanean aurrera egiteko aukera dagoela adierazi zuen, horrela errazagoa baita herriarentzat lan egitea.

1,7 milioi euroko aurrekontua du planak. Uztailean herriko ekonomia sustatzeko dirulaguntzak egokituta lau laguntza lerro bideratuz Ekonomia Sustatzeko Plan Integrala ia guztiz gauzatuta dagoela esan zuen Alkortak.

Ez da panazea izango, planak ez ditu herriko arazo guztiak konponduko, baina horrelako akordioek erakusten dute indar politikoen arteko eta herriko sektoreekiko elkarlanak posible eta beharrezkoak direla, egoera konplexu eta gogor bati aurre egiteko ez ezik, pandemiatik haragoko ekimen garrantzitsu eta berritzaileak gauzatzeko ere.



te osoa erakutsi, «Azpeitiko Udalak herriko ekonomia eta, zehazki, merkataritza zein lehen sektorea bultzatzeko duen estrategiaren parte da Enkarguk zerbitzua. Itxialdiaren ostean sektore horri emandako dirulaguntzen, kontsumoa sustatzeko Azpeitia Zaindu bonuen eta ekonomia sustatzeko laguntzen ildotik». Haren us-tez, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz gizarteak dituen beharrak asetzeko «egitasmo aparta» da Enkarguk. Halaber, Azpeitian bertako merkataritzak duen garrantzia nabarmendu zuen, eta herriko merkataritza ratioa Gipuzkoako altuenetarioa dela gogorarazi.

Azken hilabeteotako osasun krisiak arlo guztietan dituen ondorio latzak gogorarazi zituen Alkortak, baina proiektu berriak herriko merkatarien «ekintzailatza, transformazio-ra egokitzeko gaitasuna eta indarra» erakusten duela esan zuen, baita Enkarguk proiektuak egungo beharrei ez ezik, etorkizuneko ere erantzuten diela ere.

Aldalurrek gogorarazi zuen bezala, proiektu pilotua da eta, ondorioz, «pauso egokiak eman diren ikusi beharko da hasieran. Jarraian, neurri zuzentzaileak hartzen joango gara pausoz pauso». Izan ere, Usoa Etxeberriak GAUR8ri esan dionez, zenbait auzotan zer hobetu behar den aztertu behar dute. Ordutegiak-eta herritarrei egindako inkestetatik jasotako informazioaren arabera erabaki zituzten, eta behin abian jarrita, egokitzen joango dira.

HERRI GUZTIAREN ZERBITZUA

Hasieran, herriko hamasei dendak eta azokako hamahiru ekoizleak parte hartuko dute

egitasmoan. Zerbitzua herritar guztiei eskainia bada ere, herriguneko bizilagunei baino ez zaizkie erosketak etxera eramango, Etxeberriak azaldu duenez: «Proiektu pilotua izanik, herrigunetik kanpo gelditzen diren auzoetan ez da

etxerainoko zerbitzua eskainiko. Hala ere, egitasmoan parte har dezakete auzoetan bizi direnek, eta horiek, kontsignan edo saltokian jasoko dituzte enkarguak».

Ordainketak egiteko ere erraztasunak jarri dituzte: es-

Enkarguk egitasmoaren arduradunak, Udaleko ordezkariak, herriko saltokietako kideak eta ekoizleak. Behean, oposizioako bozeramaile Amaia Etxeberria, Nagore Alkorta alkatea eta Leire Goenaga zinegotzia. Azpeitiko Udala



kudirutan, txartelarekin eta transferentzia bidez ordaintzeko aukera dago.

HASIERA ONA

Astelehen goizean abiatu zen Enkarguk zerbitzua. Usoa Etxeberriak egitasmoaren aurkezpenean esan zuen zerbitzu berri horrek azpeitiarren bizi ohitura berrietara egokitzen den zalantzarik ez duela, baina herritarren parte hartzea garrantzitsua dela: «Saltokiek eta ekoizleek behar dituzte azpeitiarrak, eta ordainetan, herritarrek herrian kontsumitu eta garaiko produktu ezin hobek jasoko dituzte». Eta azpeitiarren parte hartzea ez da berandutu, Etxeberriak berak egiaztatu duenez. Lehenengo egunetik eskaera asko izan zituzten, eta hiru egun geroago berdin jarraitzen zuten.

«Oso gustura» daude jasotako erantzunarekin. «Mugimendua dago», dio Etxeberriak, eta sare sozialetan ere nabaritu dute; Instagramen, adibidez, 200 jarraitzaile dituzte dagoeneko. Web orrian izen emateko aukera ere badago, eta 60 lagunek baino gehiagok eman dute, eskaintzak eta saltokien informazioa jasotzeko. Egunero-egunero publikatzen dute zerbait eta gero, Whatsappez hedapen taldean zabaltzen dute, jende guztia ez baita sare sozialetan ibiltzen.

Pozik ageri da Etxeberria ekimen abiatu berriarekin, pozik bere herriarekin: «Azpeitia oso herri euskalduna da, komertzio ona daukana eta oso herri laua, aldapa gutxi dituen herria. Hori nire iritz pertsonala da, e?», dio barrez. Eta ekimen berriak iraun dezan nahi du, proiektu pilotu izatetik betiko gera dadila, edo «hazten joan dadila».



Maitena Usabiaga Sarasua
Sexologoa eta psikologoa

Zertan ari gara hezten?



Hezkuntza arloa hankaz gora dagoen honetan une egokia iruditzen zait harremanen inguruan idazteko. Harremantzeko moduak aldatu dira, kontaktu fisikoa ekiditeko esaten digute, arriskutsua da, kutsatu gaitezke. Eta badirudi alternatibak ditugula, pantailaren beste aldetik jarraitu dezakegula zerbaiten parte garela sentitzen, musukoa erabilita elkar ulertu dezakegula... Eta ukaezina da moldatzeko gaitasuna dugula, kanpoko etengabe aldatzen den garaiotan bizitzen jarraitzeko ahalmena dugula, baina ondorioak zeintzuk dira? Zein neurri dira ahaztuko ditugunak eta zeintzuk geratuko dira gurekin?

Askok pentsatuko duzue sexologo batek zer esan dezakeen honetaz guztiaz, zergatik hitz egiten dudan gai honi buruz. Sexu hezkuntzan sexuaz hitz egiten dugula uste da, eta sexua larrua jotzearekin lotzen da segituan, genitalekin zerikusia duten gaiak soilik lantzen ditugula, alegia. Eta uste asko bezala, honetan ere erdi ustel. Sexologiaren ikuspuntutik hitz egiten dugunean, izaki sexuatuak garela hartzen dugu abiapuntutzat, gure identitatea garrantzitsua baita munduarekin harremantzeko orduan. Zer sentitzen garen aztertzen dugu, nolakoak garen eta zein sinesmen ditugun begiratzen saiatzen gara. Gazteei esaten diegu, bakoitza den modua bakarra dela munduan, ez dagoela zu bezalako inor beste inon eta ez dela egongo, zure izate sexuatuak bakarra eta errepikaezina delako. Aniztasuna errealitate bat da hortaz, ez dago izateko modu on bakarrik, gure gorputzeko atal batek ez gaitu definitzen, ez gaitu emakume eta gizon egiten. Desirak beste hori(ek) bilatzera bultzatzen gaitu, beste hori ere bakarra delako munduan eta horregatik aukeratzen dugu. Mila dira lantzen ditugun gaiak, baina harremanak izugarritzko garrantzia dute, askotan errepikatatu dudak bezala, ez garela bakarrik, harremanean baizik. Eta bizi dugun une honetan, harremantzeko moduak krisian daude.

Sexu hezkuntza ez da oinarritzko gaia izan orain arte eta orain are gutxiago. Haur eta gazteak beldurrez jositako ha-

rremanak bizitzen ari dira. Kontuz! Eskoletan ospitaletan dauden protokoloak jarraitu behar dituzte, beraien arteko jolasak alde batera utzi, elkar ez ukitu, irakasleari aurpegia ikusi gabe harreman bat sortu, familiako kide batzuekin egoteari utzi, pantailetako ligatzeko aplikazioetan murgildu, Whatsapp, Instagram, Tiktok... Erakustokiak diren aplikazioetan babestera behartu ditugu eta gero, gainera, beraien errua dela esaten dugu, hipokritak. Baina ez pentsa beraien zalantza, kuriositate eta ezinegonak aldatu direnik; beraien gorputzaren aldaketak nola bizi galdetzen digute, hilerokoa zer den, min ematen duen, zer den larrua jotzea, lehen aldiak min ematen duen, nola ematen den muxu bat, zer den neska izatea, ea mutilek zergatik ezin duten negar egin, zakilaren tamaina garrantzitsua den ala ez, bikotea izatea ezinbestekoa den zoriontsu izateko, zein harreman mota dauden... Galdera asko eta isiltasun handia beraien inguruan.

Zoritxarrez halakoak entzunak ditugu, ez da oraingo gauza, sexuen arteko harremanak beti jo izan dira arriskutsutzat: ezkondu baino lehenago ezin dira harreman erotikoak eduki, kontuz gaixotasunekin, plazerera jolasten duten emakumeak sorginak dira, kontuz indarkeriarekin, haurdun gelditzearekin, sexua zikina da, iluna, infernura joateko arrazoia... Kontuz! Oraingoan, birus bategatik. Zertan gabilta? Arrazoi desberdinak, ondorio berdina. •



Sexuen arteko harremanak beti jo izan dira arriskutsutzat. Oraingoan, birus bategatik. Jon URBE | FOKU

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



BEGOÑA GARCIA FUNTSA

CARACASKO IKASTOLAKO ANDEREÑOAK, 1957AN

1950eko martxoaren 5ean, Aberri Eguna zela eta, Caracasko Euskal Etxea inauguratu zen El Paraiso auzoan, besteak beste Jose Antonio Agirre lehendakaria, Jesus Galindez, Eusko Jauriaritzak Venezuelan zuen ordezkari Luis Bilbao eta Nicanor Zabaleta musikaria bertan zirela. Euskal Etxearen diseinua baserri formakoa zen eta Miguel Salvadorrek eraiki zuen. 60ko hamarkadaren hasieran, Arantza, Begoña eta Miren Mujika Alberdi ahizpa bergararrek, Caracasko Las Mercedes ikastetxea zuzendu eta bertan eskolak ematen zituztenek, ikastola bat sortzea proposatu zioten Euskal Etxeari. Ikastola hori etxeko lokaletan jarri zuten. Euskadi-Venezuela ikastolako irakasleak Mujika ahizpak eta Josebe Torrontegi bilbotarra izan ziren. 70eko hamarkadan 120 ikasle izatera iritsi ziren. Urte hauetan guztietan familia-album batean gordetako argazkian, 1957an Caracasen, ezkerretik eskuinera, Begoña, Francisca Alberdi ama, Arantza eta Miren ageri dira. Nicolas Mujika Errasti Bergarako Osintxu auzoko paisaia pintore ezaguna izan zen hiru andereñoen aita eta Francisca-ren senarra. Nicolas Mujika Errastik egindako azken obretako bat Donostiako Amara Zaharra auzoko Karmeldarren Eliza apaintzen duten margolanak izan ziren.

GAUR8

ireki gure leihoa

